

LABURPENA

Giza Garapenari buruzko Txostena **2005**

Nazioarteko lankidetzaren bidegurutzean

Laguntza, merkataritza eta segurtasuna
desberdintasun handiko munduan



Nazio Batuetako
Garapen
Programarentzat
(UNDP)
argitaratua

**Euskarazko argitalpena Eusko Jaurlaritzako Garapen
Lankidetzarako Zuzendaritzaren finantzazioari esker egin da.**

Argitaratzaile: UNESCO Etxea
Urkixo zumardia 60, nagusia
48011 BILBO
www.unescoeh.org

Itzulpena: Mireia Orbegoza eta Ramon Iriarte
BAKUN itzulpen eta argitalpen zerbitzuak S.L
Orrazketak eta edizio koordinazioa: Joseba Ossa
Maketaren egokitzapena: Roberto Gutierrez

Inprimaketa: Gráficas Zubi (Azpeitia)
Lege-gordailua: SS-1109/05

Copyright © 2005
by the United Nations Development Programme
1 UN Plaza, New York, New York, 10017, USA

All rights reserved. No part of this publication may be reproduced, stored in a retrieval system or transmitted, in any form or by any means, electronic, mechanical, photocopying, recording or otherwise, without prior permission.

9 8 7 6 5 4 3 2 1

Cover and layout design: Grundy & Northedge Information Designers, London
Information design: Gerald Quinn, Quinn Information Design, Cabin John, Maryland
Technical editing, layout and production management: Communications Development Incorporated, Washington, D.C.
Editor: Charlotte Denny, Wellington, New Zealand

For a listing of any errors or omissions in HDR2005 found subsequent to printing, please visit our website at <http://hdr.undp.org>

Giza Garapenari buruzko 2005eko Txostena prestatu duen taldea

Zuzendaria eta egile nagusia

Kevin Watkins

Ikerketa, erredakzioa eta estatistikak

Haishan Fu (estatistika burua), Ricardo Fuentes, Arunabha Ghosh, Chiara Giamberardini, Claes Johansson, Christopher Kuonqui, Andrés Montes, David Stewart, Cecilia Ugaz (aholkularia) eta Shahin Yaqub.

Estatistika aholkularia: Tom Griffin

Editorea: Charlotte Denny

Produkzio zuzendaria: Marta Jaksona

Edizio teknikoa eta produkzioa:

Communications Development
Incorporated

Azala eta maketaren diseinua: Grundy &
Northedge Information Designers

Informazioaren diseinua: G. Quinn
Information Design

Giza Garapenari buruzko Txostenaren Bulegoa (HDRO)

Giza Garapenari buruzko Txostena talde lanaren emaitza da. Giza Garapenari buruzko Txostenaren Talde Nazionala (NHDRU) kideek zirriborroari buruzko iruzkinak egiten dituzte eta edukiaren gaineko aholkuak eman. Gainera, garapen bidean dauden herrialdeetako ikerketa sare zabalago bateko kide ere badirenez, txostenak lotura estua du sare horrekin. NHDRU taldearen buru Sarah Burd-Sharps dugu, eta bertako kide dira Sharmila Kurukulasuriya, Juan Pablo Mejia, Mary Ann Mwangi eta Timothy Scott. Bestalde, HDROko bulegoko lana egiten dutenak Oscar Bernal, Mamaye Gebretsadik eta Melissa Hernandez dira. HDROko funtzionamenduaren buru Yves Sassenrath eta Ana Maria Carvajal dira. HDROren hedapen eta komunikazio programen buru, berriz, Marisol Sanjines eta Nena Terrell.

Hitzaurrea

Tamalez, honako hau izango da *Giza Garapenari buruzko Txostenean* idatziko dudan azken hitzaurrea, Nazio Batuen Garapen Programako (NBGP) administrari kargua utzi egingo baitut abuztuan. 1999an NBGPren arduraren hartzean esan nuen *Giza Garapenari buruzko Txostena* zela Erakundeak munduan egiten duen ahalegin intelektualaren eta babes lanaren altxorra. Sei urte igaro eta sei txosten idatzi ondoren, harrotasunez jakinarazten dut altxorraren distira hazi baino ez dela egin.

Giza Garapenari buruzko Txosten arrakastatsua sortu ziren hamarkadan berehala gorpuztu zen giza garapenaren kontzeptua, eta harrezkero, gero eta indar handiagoa hartu dute txosten horiek. Giza Garapenari buruzko Txostenak giza garapenaren muga intelektualak etengabe zabaldu ditu milurteko berrian: aberatsek bezalaxe, pobreek ere teknologia berriak erabiltzeko aukerak aztertu dira; ahulenak babestu eta hauei boterea emateko giza eskubideak indartzeak eta demokrazian sakontzeak duen garrantzi izugarria azpimarratu da. Eta aldaketa hau gero eta gehiago islatu da NBGPren garapen lanaren eta erakundearen lankideen funtsezko eremu hauetan guztietan.

Laburbilduz, NBGPk babesten dituen arren, NBEPen zein NBGPren politika nahitaez islatzen ez duten ahots independente eta adierazkor diren Giza Garapenari buruzko Txostenek, urteen poderioz, merezitako oспе ona irabazi dute munduan zehar. Ezinbesteko eginkizun eragilea izan dute egungo garapen politika auzien giltzei irtenbide jakinak emateko orduan. Egun, txostenak argi uzten duen moduan, garapen komunitateak (eta behar bada munduak ere bai) daukan erronkarik handiena Milurteko Garapen Helburuak 2015erako betetzea da.

2003ko Giza Garapenari buruzko Txostenak ekintza plan xehe bat proposatu zuen –neurri handi batean NBEPen Milurteko Proiektuaren lanean oinarrituta– helburu bakoitza nola bete zitekeen azalduz. Alabaina, hainbat herrialde eta helburutan au-

rrerapauso esanguratsuak egin diren arren, hori guztia motz geratzen da egin beharreko guztiaren aurrean. Orain dela hilabete batzuk, NBEPko Idazkari Nagusiak proposamen bat egin zuen –NBEPen Milurteko Proiektuaren azken txostenean oinarritutako milurteko helburuak 2002ko Monterreyko adostasunetik abiatuz nola lortu daitezkeen adieraziz. Izan ere, horren zutabe nagusia garapen bidean dauden herrialdeek nork bere garapenaren arduraren hartzeak konpromisoa da. Herrialde garatuaren eginkizuna, berriz, hauxe litzateke: garapen estrategia nazional garden eta sinesgarriari babesa ematea eta aurrekontu egokia dutela bermatzea, milurteko garapen helburuak bete ahal izateko.

Nolanahi ere, proposamen horrek ez du arrakastarik izango azken aldirian prozesua moteltzen ari diren oztopoak gainditzen ez baditugu, txostenean esaten den bezala. Datoren hamarkadan aurrerapen egokia lortzekotan, oztopoak hiru arlo zabal hauetan gainditu beharko dira: laguntza, merkataritza eta gatazkak. Txostenak begiratu berri bat ematen dio funtsezko eremu hauetako bakoitzari eta oztopoak gainditu ahal izateko egin behar denari (oraintxe bertan egin beharrekoari) buruzko azterketa sinesgarri eta sakona eskaintzen du. Aukera berri bat eman duen urte gisa gogoratuko dugu 2005. urtea: munduko buruzagiek NBEPen irailko gailurrean hitz emandakoak ekintza bihurtzeko aukera izango dute munduko pobrezia gorriarekin amaitzeko. Ezin dugu

aukera hau galdu, gure hurrei eta ondorengo belaunaldiei mundu seguruago eta justuagoa utzi nahi badiegu, behintzat.

Azkenik, administrari gisa idazten dudan azken txostena bada ere, Giza Garapenari buruzko Txostenaren Bulegoko Zuzendari Kevin Watkinsen lehenengoa izango da. Bere azterketaren indarrak eta sakontasunak argi uzten du esku ezin hobetan daudela *Giza Garapenari buruzko Txostena* eta honek or-

dezkutzen eta sinbolizatzen duen giza garapenaren ondarea. Etorkizunik hoberena opadiet berari, bere talde finari eta neure ondorengoari, Kemal Dervis lagunari.



Mark Malloch Brown
NBGPko administraria

Txosten honetako azterketek eta aholkuek ez dute zertan islatu Nazio Batuen Garapen Programako ikuspuntua, ezta Zuzendaritza Batzordearena edota estatu kideena ere. Txostena NBGPren ardurapean dagoen argitalpen independentea da. Aditu eta aholkulari bikainez osatutako talde baten eta Giza Garapenari buruzko Txosteneko taldearen elkarlanaren fruitu da. Giza Garapenari buruzko Txostenaren Bulegoko zuzendari Kevin Watkins izan da honen guztiaren buru.

Aurkibidea

Hitzaurrea	4
Txosten osoaren edukiak	7
Txostenaren laburpena	14
Giza garapenaren egoera	16
Desorekaren garrantziaren arrazoiak	24
Nazioarteko laguntza: kantitatea handituz, kalitatea hobetuz	28
Merkataritza eta giza garapena: loturak estutuz	31
Indarkeriazko gatazkak, aurrerapenerako oztopo	37

Oharra: ondorengo orrialdeetan datozen edukiak txosten osoaren edukiak dira, ez laburpenarenak.

2005eko Giza Garapenari buruzko Txostenaren edukia

Laburpena Nazioarteko lankidetzaren bidegurutzean: Laguntza, merkataritza eta segurtasuna desberdintasun handiko munduan

1. atala Giza garapenaren egoera

Aurrerapenak eta atzerakadak giza garapenean

Aurrerapenak giza garapenean: ikuspegi orokorra

Aurrerapenak giza garapenaren indizearen arabera

Giza garapenaren mugak

Konbergentziaren amaiera?

Desoreka eta aberastasun global hazkorrean herrialde pobreek duten partaidetza

2015. urtea: Milurtekoko Garapen Helburuen aurreikuspenak

2015. urtea: proiektzioak, ez aurreikuspenak

Ibilbide aldatkorra eta bidera itzultzea

2. atala Desoreka eta giza garapena

Desorekaren garrantziaren zergatiak

Justizia soziala eta moraltasuna

Behartsuak lehen postura

Hazkundera eta efizientzia

Zilegitasun politikoa

Gobernu politikaren helburuak

Aurkako argudioen aurka

Desabantaila kateak: herrialde barruko desorekak

Desoreka geruzak, bizi aukerentzako mugak

Aukera desorekak: osasun desorekak eta MGHak

Pobreen aldeko hazkunderaren giza garapenerako potentziala

Hazkunderaren banaketa hobetuz

Pobreen aldeko hazkundera lortuz

3. atala XXI. menderako laguntza

Laguntza birpentsatuz

Laguntza: inperatibo morala eta norberaren interes logikoa

Laguntza eta giza garapena

Laguntza finantzarioa: lorpenak, arazoak, erronka

Laguntzaren kantitatea

Laguntza eta MGHak: garestiegiak ote herrialde aberatsentzako?

Laguntza gehiago hartu al daiteke?

Laguntzaren kalitate eta eraginkortasunaren ahuldadeak

Laguntzaren hauskortasuna eta aurreikusteko ezintasuna

Laguntzaren baldintzak eta herrialdearen jabetza

Emaila gehiegi, koordinazio gutxiegi

Baliabide transferentzia ez-eraginkorrak: laguntza baldintzatuak
Hobe proiektuak babestea, aurrekontu nazionalak baino
Laguntzaren gestioa birpentsatuz
Laguntza bilateralak: Afrikako ikasgai batzuk
Ekimen multilateralak
Laguntza aldatuz

4. atala Nazioarteko merkataritza: giza garapenerako gaitasuna askatuz

Elkarmenpeketasunezko mundua
Merkataritza eta bizi estandar globalak
Konbergentziaren mugak
Merkataritza eta giza garapena
Arau bidegabeak: merkataritza herrialde garatuen alde
Merkaturako sarbidea
Nekazaritza alorreko merkataritza
Garapen politiken espazioa murriztuz
Arauetatik haratago: salgaiak, atezain berriak eta gaitasun eraikuntza
Salgaien krisia
Merkatuko atezainen eginkizuna
Gaitasun eza
Doha garapenaren aldeko bihurtuz
MMEren agintea birpentsatuz
Nola jarri merkataritza MGHen alde

5. atala Indarkeriazko gatazkak: zein da benetako mehatxua?

Indarkeriazko gatazka XXI. mendearen hasieran
Segurtasun arriskuak herrialde pobreetara doaz
Gatazkaren kostuak giza garapenaren aldetik
Gatazkarako joera duten estatuen erroka
Desoreka horizontalak
Baliabide naturalen kudeaketa
Mugez gaindi
Nazioartearen erantzuna
Laguntza hobetuz
Baliabide naturalen kudeaketa eta arma arinak
Eskualdeko gaitasuna eraikiz
Berreraikuntzaren errokek
Gerratik bakera eta baketik segurtasunera
Segurtasuna birdefinitu eta segurtasun kolektiboa eraiki

Oharrak
Ohar bibliografikoa
Bibliografia

Koadroak

- 1.1** GIB/HIESak atzerakadak handiak eragiten ditu giza garapenean
- 1.2** Hilkortasun krisia Errusiar Federazioan: 7 milioi gizon "galduta"
- 1.3** India: globalizazioaren adibide arrakastatsua, baina giza garapeneko emaitza gorabeheratsua
- 1.4** 6 milioi bizitza salbatzea: lorgarria eta ordaingarria
- 1.5** Txanpan koparen efektua: munduko aberastasunaren banaketa
- 1.6** Milurtekoko Garapen Helburuak
- 1.7** Bangladesh: hazkunde geldoa, giza garapen bizkorra
- 1.8** Uganda: aurrerapen ikaragarria, baina desorekatua
- 2.1** Desoreka eta osasuna Estatu Batuetan
- 2.2** Txina: gero eta desoreka handiagoak osasunean
- 2.3** Pobrean aldeko hazkunde eta hazkunde aurrerakoia
- 2.4** Haurren pobrezia murrizketa Erresuma Batuan
- 2.5** Inbertsio publikoak gizarte eraldaketan
- 3.1** *Great Society* programa
- 3.2** Kostuen mugak murriztuz
- 3.3** Gizarte aseguruarentzako laguntza Zambian
- 3.4** G8 gailurretik Biltzar Nagusira: hitzak ekintza bihurtzen
- 3.5** Kanpo zorra arinduz: urrats bat haratago
- 3.6** Nazioarteko Garapen Elkartearen etorkizuna
- 3.7** *International Finance Facility*-ren proposamena
- 3.8** Gaitasuna ahulduz laguntza proiektuaren bidez: Afganistango kasua
- 4.1** Ona al da merkatuak zabaltea hazkudearentzako?
- 4.2** Vietnam eta Mexiko: bi globalizatzaileen kasu kontrajarriak
- 4.3** Guatemala: esportazioak gidatutako arrakastaren mugak
- 4.4** Multifibra Akordioa pixkanaka baztertuz
- 4.5** Nora joaten dira subsidioak?
- 4.6** Noiz ez da subsidioa subsidio?
- 4.7** Indiako automobilgintza osagaien sektorea
- 4.8** Munduko Merkataritza Erakundeaz haratago
- 4.9** Kafearen krisia
- 4.10** Merkataritza alorreko "gaitasun eraikuntza"rako laguntza teknikoaren mugak
- 4.11** Koherentziaren bila
 - 5.1** Kongoko Errepublika Demokratikoa: gerrak estatu ahulak okerrago uzten ditu
 - 5.2** Segurtasun ezak ogibidetan duen eragina: Karamojako adibidea (Uganda)
 - 5.3** Palestinako lurralde okupatuak: giza garapenaren atzerakada
 - 5.4** Boli Kosta: desoreka horizontalek "mirari afrikarra" ahuldu dute
 - 5.5** Elkarrizketa partehartzailearen onurak eta mugak gatazken prebentzioan

Taulak

- 1.1** GGHetan atzerakada duten herrialdeak
- 1.2** Pobreziaren beherakada, 1981-2001
- 1.3** Diru-sarrera hazkundera
- 3.1** Gastu militarrek txikitu egiten dute garapen laguntza ofiziala herrialde aberatsetan
- 4.1** Nikaraguako ongizate aldaketak: kafearen prezioa jaistearen kostuak, 1998-2001

- 5.1** Gatazkek heriotza asko eragiten dituzte
- 5.2** Natur baliabideek gatazkek eragin dituzte herrialde askotan
- 5.3** Gatazka ondoreneko bakegintza operazioak eta gobernu boterea

Grafikoak

- 1.1** Bizi itxaropena, eskualde gehienetan hobetzen
- 1.2** Haurren hilkortasun tasak eta joerak hobetzen
- 1.3** Demokrazia zabaltzen ari da
- 1.4** Giza garapena eskualde gehienetan hobetzen
- 1.5** Diru-sarrera desberdinak, antzeko GGLak
- 1.6** Eskolara joaten ez diren haurrak: gehienbat Afrikan eta Hego Asian
- 1.7** Eskolan emandako urteak: aldeak oraindik handiak dira
- 1.8** Sahara azpiko Afrikan bizi itxaropena ez da 1840ko Ingalaterran baino askoz hobe
- 1.9** HIESak hildako gehiago eragin ditu Lehen Mundu Gerrak baino
- 1.10** Haur gutxiago hiltzen dira, baina aurrerapena geldotzen ari da
- 1.11** Haur hilkortasuna: aberatsen eta pobreen arteko desberdintasunak handitzen ari dira
- 1.12** Jaioberrien hilkortasuna ez dago diru-sarreraren gain
- 1.13** Diru-sarreraren hazkundea eta haurren hilkortasuna ez datoz bat Indian eta Txinan
- 1.14** Txina eta Indiako haurren hilkortasun tasak
- 1.15** Hazkunde konbergentzia eta sarreraren konbergentzia absolutua
- 1.16** Non dago dirua?
- 1.17** Haurren helburuak bete ezinik
- 1.18** Haur hilkortasunaren giza kostua
- 1.19** Haur hilkortasuna, bete gabeko helburuen kostu akumulatiboa
- 1.20** Ur garbia ez izatearen giza kostua
- 1.21** Pobreziaren giza kostua
- 1.22** Haurrak eskolara ez joateren giza kostua
- 1.23** Neskak eskolara ez joatearen giza kostua
- 1.24** Sarrera hobe izateak ez du genero indartzea ekartzen
- 2.1** Desorekak diru-sarreretan: herrialde eta eskualde hautatuak
- 2.2** Diru-sarreraren tartaren banaketa
- 2.3** Zer moduz pobreak? Batez besteko sarrera garrantzitsua da, baita desoreka ere
- 2.4** Pobreen haurrak errazago hiltzen dira
- 2.5** Desorekaren zikloa: jaiotzatik gaztarora, pobreak okerrago
- 2.6** Giza garapen desorekak Txinako probintzien artean
- 2.7** Mexikoko hezkuntzaren bi munduak
- 2.8** Landa inguruetakoko haurrak errazago hiltzen dira
- 2.9** Eskola amaitzea Pakistanen
- 2.10** Pobrezia Guatemalan: etnizitatea eta kokapena
- 2.11** Haur hilkortasuna: aberatsen eta pobreen arteko aldea handitzen
- 2.12** Tanzania: hiriburuan bakarrik egin du behera pobrezia
- 2.13** Pobrezia gorria: 2015erako bi aukera
- 3.1** Epe luzera begira: laguntzen joerak 1960az geroztik
- 3.2** Laguntza emaileen liga
- 3.3** Aberatsago baina berekoiago: aberastasuna laguntza baino azkarrago ari da hazten...
- 3.4** ... baina emaitzak aldakorrak dira
- 3.5** Monterrey ondorengo aurrerapena GLO helburuetarantz

- 3.6** MGHak finantzatzeko aldeak
- 3.7** Hazitako laguntzaren banaketa
- 3.8** Herrialde pobreei ematen zaizkien laguntzen gorabeherak
- 3.9** G7 taldeko herrialdeetako egoera fiskala
- 3.10** Gastu militarra versus garapenerako laguntza
- 3.11** *International Finance Facility*-ren bidezko laguntza
- 3.12** Laguntzen ezegonkortasuna
- 3.13** Laguntza baldintzatuaren liga
- 3.14** Laguntzaren zerga: laguntza baldintzatuaren kostua
 - 4.1** Esportazioen gorakada eta diru-sarrerak
 - 4.2** Munduko produktu manufakturatuen esportazioen hazkundea
 - 4.3** Muga zergak gero eta txikiago
 - 4.4** Esportazioen arrakasta oso kontzentratuta dago
 - 4.5** Sahara azpiko Afrikaren partaidetza murrizten munduko merkataritzan
 - 4.6** Munduko esportazioak: herrialde aberatsak nagusi oraindik ere
 - 4.7** Produktuen balio erantsia: herrialde pobreen partaidetzaren gorabeherak
 - 4.8** Muga zergak jaisteak ez du berez hazkundea eragiten
 - 4.9** Mailaketa gaiztoak merkataritza zergetan
 - 4.10** Zerga politika gaiztoak
 - 4.11** Handia handitzen: herrialde aberatsek nekazaritzari emandako laguntzak
 - 4.12** EBko azukrea: gainproduzitu eta munduko merkatuetan merke-merke saldu
 - 4.13** AEBetako kotoi produkzioa: prezio aldaketen aurrean aldagaitz
 - 4.14** Kafearen prezioak eta ekoizpena Etiopian
 - 5.1** Gatazka gutxiago 1991z geroztik
 - 5.2** Segurtasun arazoak Afrikarako bidean
 - 5.3** Giza garapen ahula duten eta gatazka bizi berria duten herrialdeetako lehentasunak
 - 5.4** Gatazka ondorengo berreraikuntzarako laguntza

Kolaborazio berezia

Gatazka ondorengo berreraikuntzaren erronkak: Afganistango ikasgaiak *Ashraf Ghani*

Mapa

- 1.1** Haur hilkortasunaren geografia: 2015eko M.G. Helburuak lortzeko bidean egindako aurrerapausoak

Giza garapenaren adierazleak

Irakurlearen gida

1. taularen oharra: aurtengo giza garapenaren indizeari buruz

Giza garapena kontrolatzen: jendearen aukerak ugarituz...

- 1** Giza garapenaren indizea
- 2** Giza garapenaren indizearen joerak
- 3** Gizakia eta diru-sarreraren pobrezia: garapen bidean dauden herrialdeak
- 4** Gizakia eta diru-sarreraren pobrezia: ELGE herrialdeak, Europa Ekialdea eta EIK

...bizitza luzea eta osasuntsua izateko...

- 5** Demografia joerak
- 6** Konpromisoa osasunarekin: baliabidea, eskuragarritasuna eta zerbitzuak
- 7** Ura, osasuna eta elikadura estatusa
- 8** Desorekak amen eta haurren osasunean
- 9** Munduko osasun krisi eta arriskurik garrantzitsuenak
- 10** Biziraupena: aurrerapenak eta oztupoak

...jakinduria izateko...

- 11** Konpromisoa hezkuntzarekin: gastu publikoa
- 12** Alfabetismoa eta eskolatzea
- 13** Teknologia: zabaltzea eta sortzea

...bizi maila duina izateko beharrezko diren baliabideak eskura izateko...

- 14** Emaita ekonomikoak
- 15** Diru-sarreraren edo kontsumoaren desorekak
- 16** Merkataritzaren egitura
- 17** Herrialde aberatsen ardura: laguntza
- 18** Herrialde aberatsen ardura: zorra arintzea eta merkataritza
- 19** Laguntza fluxuak, kapital pribatua eta zorra
- 20** Gastu publikoen lehentasunak
- 21** Langabezia ELGE herrialdeetan

...baina etorkizuneko belaunaldientzat ere gordez...

- 22** Energia eta ingurumena

...segurtasun pertsonala babestuz...

- 23** Errefuxiatuak eta armamentuak
- 24** Krimenaren biktimak

...eta emakume eta gizonezko guztientzat berdintasuna lortuz

- 25** Generoarekin zerikusia duen garapenaren indizea
- 26** Genero boterea hartzearen neurria
- 27** Genero desorekak hezkuntzan
- 28** Genero desorekak ekonomi jardueran
- 29** Generoa, lana eta denboraren banaketa
- 30** Emakumeen parte-hartze politikoa

Gizakia eta lan eskubideen tresnak

- 31** Nazioarteko giza eskubideen tresna garrantzitsuak
- 32** Oinarrizko lan eskubideen hitzarmenen estatusa
- 33** NBEko beste herrialde batzuetako oinarrizko adierazleak

Giza Garapenari buruzko Txostenean ematen diren datu estatistikoei buruzko oharra

Ohar teknikoak

- 1** Nola kalkulatu diren giza garapenaren indizeak
- 2** Pobrezia murrizteko txanponaren bi aldeak: zergatik dira garrantzitsuak hazkundea eta banaketa?
- 3** Milurtekoko Garapen Helburuetarako aurrerapenaren ebaluazioa


Termino estatistikoaren definizioak

Erreferentzia estatistikoak

Herrialdeen sailkapena

Adierazleen aurkibidea

Milurtekoko Garapen Helburuen adierazleen aurkibidea adierazleen tauletan



Nazioarteko lankidetzaren bidegurutzean

Laguntza, merkataritza eta segurtasuna desberdintasun handiko munduan

Orduko 1.200 haur hiltzen dira munduan, baina ez dute apenas komunikabideen arretarik jasotzen

Naturaren botere suntsitzailea eta gizakiaren errukiak duen botere birsortzailea erakutsi zituen gertaera batekin amaitu zen 2004. urtea. Indiako Ozeanoa zeharkatu zuen tsunamiak 300.000 lagun ingururen bizia eramanez. Milioika lagun utzi zituen etxerik gabe. Tsunamia gertatu zen egunetan, azken garaioan jazotako natur hondamendirik okerrenak munduko laguntza ahaleginik handiena ekarri zuen. Hala, esfortzu ikaragarria egiteko konpromisoa hartuz gero, munduko elkartasunarekin zenbaterainoko lorpenak eskura daitezkeen erakutsi zuen nazioarteko komunitateak.

Naturaren botere suntsitzailea eta gizakiaren errukiak duen botere birsortzailea erakutsi zituen gertaera batekin amaitu zen 2004. urtea. Indiako Ozeanoa zeharkatu zuen tsunamiak 300.000 lagun ingururen bizia eramanez. Milioika lagun utzi zituen etxerik gabe. Tsunamia gertatu zen egunetan, azken garaioan jazotako natur hondamendirik okerrenak munduko laguntza ahaleginik handiena ekarri zuen. Hala, esfortzu ikaragarria egiteko konpromisoa hartuz gero, munduko elkartasunarekin zenbaterainoko lorpenak eskura daitezkeen erakutsi zuen nazioarteko komunitateak.

Tsunamia ikusten erraza, iragarri ezina eta neurri handi batean saihestu ezinezko ezbeharrak izan zen. Beste ezbehar batzuk, ordea, ez dira hain erraz ikusten, egunero iragartzeko modukoak dira, eta erraz saihestekoak, gainera. Orduko 1.200 haur hiltzen dira munduan, baina ez dute apenas komunikabideen arretarik jasotzen. Hilero hiru tsunami gertatzea bezalakoa da, eta hilero munduko hiritarrik ahulenei erasotzen die: haurrei. Heriotzaren zergatiak desberdinak dira, baina gehienak gaixotasun bakar batek jota hiltzen dira: pobrezia jota, alegia. Tsunamiari ez bezala, badago gaixotasun horri aurre egiterik. Gaur egun ditugun teknologia, finantza baliabide eta metatutako jakinduriarekin, munduak miseria gorriari aurre egiteko gaitasuna dauka. Hala ere, guk, nazioarteko komunitateak, pobrezia bizitzak suntsitzen jarraitzen uzten diogu, tsunami txiki uzten duen eskalan, gainera.

Orain dela bost urte, milurteko berria hasi zenean, pobrezia biktima gutxiei promesa

esanguratsu bat egiteko elkartu ziren munduko gobernuak. Nazio Batuetan bildu eta Milurtekoko Adierazpena sinatu zuten; hau da, “gizonezkoak, emakumeak eta haurrak pobrezia gorriaren baldintza jasangaitzetatik ateratzeko” konpromiso irmoa. Adierazpenak ikuspuntu ausarta erakusten du, giza eskubide unibertsalak eta justizia soziala betetzeko guztion konpromisoan oinarrituta eta epemuga argiko helburuekin. Helburuok Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) dira, eta besteak beste, asmo hauek jasotzen dira: pobrezia gorria desagerraraztea, haurren heriotza murriztea eta munduko haur guztiei hezkuntza eskaintzea, gaixotasun infekziosoak gutxitzea eta emaitza garbiak emango dituen elkartasuneko itun berria sortzea mundu osoan (1. taula). Helburuok betetzeko epemuga 2015. urtea da.

Egia da giza garapena indartzeko Milurtekoko Garapen Helburuak baino zerbait gehiago behar dela. Hala ere, funtsezko erreferentzi puntu dira helburuok, pobrezia gutxiagoko mundu berria, bidezkoagoa eta seguruagoa sortzeko aurrerabidean eginiko aurrerapenak neurtzeko. 2005eko irailean munduko gobernuak berriro ere Nazio Batuen Erakundearen egoitzan elkartuko dira Milurtekoko Adierazpena sinatu zutenetik lortutako garapena aztertzeko eta 2015era arte geratzen den hamarkadarako ibilbidea marrazteko.

Ezer gutxi dago ospatzeko, ordea. Aurrerapauso garrantzitsu batzuk egin dira giza garapenean Milurtekoko Adierazpena sinatu zenetik. Pobrezia behera egin du eta gizarte adierazleak

hobetu egin dira. Milurtekoko Garapen Helburuek garrantzi handia hartu dute nazioartean. Izan ere, garapenaren eta pobreziaren aurkako borroka protagonismo handia hartu du nazioarteko gai zerrendan, hamarkada bat lehenago imajinatu ere egingo ez genukeen eran. Pobrezia erabat ezabatzeke mundu kanpaina izan da 2005. urteko ekintza nagusietarikoa, inoiz egin den handiena. Dagoeneko, kanpainak bere arrastoa utzi du G8 munduko potentzia ekonomiko eta industrial indartsuenen gailurrean, aurrerapen batzuk egin baitira laguntza areagotzeko eta kanpo zorra arintzeko ahaleginetan. Hauxe da hortik ateratako ikasgaia: jendearen mobilizazioak babesten dituzten argumentu indartsuek mundua alda dezakete.

Alabaina, gobernuak NBEren 2005eko gailurrerako prestatzen ari diren bitartean, oro har, emaitzei buruzko berriak etsigarriak dira. Herrialde gehienek ez diete jada eusten MGHei. Zenbait esparru nagusitan, giza garapena geldotzen ari da, eta jada handiak ziren desberdintasunak areagotu egin dira. Formulazio diplomatikoak eta terminologia dotorea erabiltzen dira giza garapena eta Milurtekoko Adierazpenean egindako gurariak bat ez datozela azaltzeko. Horrek ez du balio, argi eta garbi hitz egin behar da: munduko pobreei emandako hitza ez da bete.

2005. urtea bidegurutzeta da. Munduko gobernuak bi aukera dituzte. Lehena, une hau aprobetxatu eta 2005. urtea “garapenerako hamarkadaren” hasiera gisa finkatzea litzateke. Milurtekoko Garapen Helburuak betetzeko beharrezko diren inbertsio eta politikak gaur bertan martxan jartzen badira, garaiz gaude Milurtekoko Adierazpenean agindutakoa betetzeko. Baina denbora ahi-tzen ari da. NBEren gailurrak ekintza plan ausartak egiteko aukera zabala ematen du. Ekintza plan horiek beharrezkoak dira, batetik, 2015erako helburuei berriro eusteko eta, bestetik, gizakien arteko desoreka sakonak gainditzeko eta globalizazio eredu berri eta justuago bat eraikitzeko.

Bigarren aukera, berriz, betiko moduan jarraitzea da, eta 2005. urtea Milurtekoko Adierazpeneke betebeharrak hautsitako urte bilakatzea. Hori hautatuz gero, honela gogoratuko ditu historiak belaunaldi honetako politikariak: Milurtekoko Garapen Helburuak beren begien aurrean huts egiten utzi zituzten buruzagi modura. Ekintzak proposatu beharrean, NBE bilerak hitz dotorez jositako adierazpenak agertuko litzuzke, eta herrialde aberatsek hitzak bai baina ekintzarik ez lukete eskainiko. Emaitza horrek eragin nabarmena izango luke munduko pobreengan. Baina, horrek munduko segurtasuna, bakea eta oparotasuna arriskuan jarriko litzuzke, egungo munduan

mehatxuak eta aukerak gero eta elkarlotuago baitaude.

2005eko gailurrak aukera paregabea eskainiko die Milurtekoko Adierazpena sinatu zuten gobernuari benetan ari direla frogatzeko eta “betiko kontua” aldatzeko gai direla erakusteko. Hauxe da Milurtekoko Adierazpena paperezko promesa hutsa ez dela frogatzeko unea; hauxe da Adierazpena aldaketarako konpromisoa dela erakusteko unea. Munduko pobreziaren tsunamia gelditu egin behar da, eta gailurra da horretarako behar diren inbertsio baliabideak mobilizatzeko eta planak garatzeko unea. Zer behar da? Duela bost urte gobernuak finkaturiko helburuen alde jarduteko borondate politikoa, ez besterik.

Giza Garapenari buruzko Txostena 2005

2015. urterako 10 urteen atzekoz aurrerako zenbaketa hastera doanean, munduak duen erronka handia azpimarratzen du txostenak. He-

Hauxe da Milurtekoko Adierazpena paperezko promesa hutsa ez dela frogatzeko unea; hauxe da Adierazpena aldaketarako konpromisoa dela erakusteko unea

1. koadroa

Milurtekoko Garapen Helburuak

2005eko irailean NBEko Batzar Nagusiak 2000ko Milurtekoko Adierazpenaren ondoren izandako lorpenak aztertuko ditu, horien artean Milurtekoko zortzi garapen helburuak. Helburuok zortzi eremutan aurrerapena izateko erreferentzi puntu dira, eta gehienek 2015. urtea dute epemuga:

- 1. helburua** Pobrezia eta gose gorria errotik desagerraraztea, egunean dolar bat baino gutxiago duten biztanleen ehuneko eta gose direnen kopurua erdira jaitsiz.
- 2. helburua** Lehen Hezkuntza unibertsala erdiestea, haur guztiak Lehen Hezkuntza amaitzeko gai direla bermatuz.
- 3. helburua** Generoen arteko berdintasuna eta emakumeen botere hartzea sustatzea, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan genero desberdintasuna desagerraraziz, 2005 baino lehen bada hobe, eta beranduenez 2015erako.
- 4. helburua** Haurren heriotza tasa apaltzea, bost urtetik beherako umeen heriotza tasa bi heren murriztuz.
- 5. helburua** Amen osasuna hobetzea, amen heriotza tasa hiru laurden murriztuz.
- 6. helburua** GIB/HIESari, paludismoari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea, GIB/HIESa eta beste gaixotasun batzuekin amaituz eta atzeratzen hasiz.
- 7. helburua** Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea, edateko ura eta saneamenduko bitartekorik ez dituzten pertsonen ehuneko erdira murriztuz.
- 8. helburua** Garapenerako munduko itun bat sustatzea. Herrialde pobreei tratu berezia emanez laguntza eta merkataritza trukeak berritzea.

Benetako arriskua dugu datozen 10 urteetan, igaro diren 15 urteetan bezala: adostasun berriak agintzen duena baino gutxiago egitea giza garapenaren alde

rrialde aberatsetako gobernuak munduko itun-hitzarmenean beren ardura betetzeko egin dezaketena hartzen du oinarri. Honek ez du esan nahi garapen bidean dauden herrialdeek ardurarik ez dutenik. Aitzitik, lehen mailako erantzukizuna daukate. Izan ere, nazioarteko lankidetzaren oso handia izan arren, ez du ezertarako balio baldin eta bertako gobernuak lehentasunik ematen ez badiote giza garapenari, giza eskubideak errespetatzeari, desberdintasunei aurre egiteari edo ustelkeria amaitzeari. Beraz, ekintza praktikoa babestuko dituen lankidetzarako konpromisorik gabe MGHeh huts egingo dute eta Milurtekoko Adierazpena historian bete gabeko beste promesa bat izango da.

Lankidetzako hiru zutabetan oinarritzen gara, eta hirurak ere berehala berri behar dira. Lehenengo zutabea garapenerako laguntza ematea da. Nazioarteko laguntza inbertsio giltzarria da giza garapenean. Zer-nolako etekinak emango lituzke inbertsio horrek? Giza potentziala: eragotzi daitezkeen gaixotasun eta heriotzei aurre egitearen, haur guztiei hezkuntza helaraztearen, genero desberdintasunak gaitzitearen eta hazkunde ekonomiko iraunkorrerako baldintzak sortzearen ondorioz irabazitako giza potentziala, alegia. Garapenari laguntza ematerakoan bi arazo sortzen dira: dirulaguntza falta kronikoa eta kalitate eskasa. Bi eremutan hobekuntzak izan diren arren, asko geratzen da egiteko MGHen finantza hutsuneak betetzeko eta diruari etekin handiago ateratzeko.

Bigarren zutabea nazioarteko merkataritza da. Baldintza egokitan, giza garapenaren eragile indartsua izan daiteke merkataritza. 2001ean, herrialde aberatsetako gobernuak baldintza horiek sortzeko aukera eman zitzaion Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) Dohako Garapenaren Programetako elkarrizketetan. Ondorengo lau urteetan, ordea, ez da lorpen esanguratsurik eskuratu. Herrialde aberatsetako merkataritza politikek pertsona eta herrialde pobreei munduko banaketa bidezkoa ukatzen jarraitzen diete, Milurtekoko Adierazpenaren ideien aurka. Laguntzak baino gehiago, merkataritzak du munduko pertsona eta herrialde pobrenei munduko oparotasunetik dagozkien zatia handitzeko gaitasuna. Ahalmen hori bidegabeko merkataritza politiken bidez mugatzea ez dator bat MGHen konpromisoekin. Are gehiago, ekintza injustua eta hipokrita da.

Hirugarren zutabea segurtasuna da. Indarkeriazko gatazkek ehunka milioi lagun biziak suntsitzen dituzte. Giza eskubideen urraketa sistematikoa eragiten dituzte eta MGHeh lortzeko traba dira. Egungo gatazkek beste modu bate-

koak dira. Gainera, gizartearen segurtasuna arriskuan jartzen duten mehatxu berriak sortu zaizkigu. Gatazkei aurre egitean edo bake aukerak bilatzean eginiko akatsengatik sortu dira mehatxu horiek, gehienbat, eta, egungo mundu gero eta elkarlotuago dagoenez, mehatxu horiek herrialdeetako mugak gainditzen dituzte ezinbestean. Nazioarteko lankidetzaren eraginkorrerako batek laguntza egokia eman dezake gatazka bortitzek MGHen aurrerabidean sortutako oztopoak gainditzen. Horrela, giza garapena azkartzeko eta benetako segurtasuna lortzeko baldintzak sortuko lirateke.

Eta ezinbestekoa da nazioarteko lankidetzako hiru zutabeetan berrikuntzak batera egitea. Eremuren batean hutsegiteren bat egonez gero, etorkizunean aurrerapena ekarriko duten oinarriak ahuldu egingo dira. Nazioarteko merkataritzan arau eraginkorrak sortzeak, adibidez, ez du askorako balioko indarkeriazko gatazkek merkataritzan parte hartzeko aukerak eragotzen dituzten herrialdeetan. Nazioarteko laguntza areagotu arren, merkataritzako arau bidezkoagorik gabe, emaitzak ez dira izango bikainak. Eta bakea hauskorra izango da beti, baldin eta laguntzaren eta merkataritzaren bidez lor daitezkeen giza ongizatea hobetzeko eta pobrezia murrizteko aukerarik ematen ez badu.

Giza garapenaren egoera

Duela hamabost urte, lehenengo Giza Garapenari buruzko Txostenak aurrerapen azkarreko hamarkada bat espero zuen. Era baikor honetan aurreikusten zuen: “90eko hamarkada garapenaren hamarkada izango da. Izan ere, honelako adostasunik ez da egunero lortzen garapen estrategiatako helburu errealetan”. Egun, 1990ean bezala, garapenari buruzko adostasuna dugu. Adostasun hori irmo adierazi zen NBEren Milurtekoko Proiektuan eta Erresuma Batuak babestutako Afrikarako Batzordean. Zoritxarrez, adostasuna ez da oraindik ekintza praktikoa bihurtu, eta datorren hamarkadarako seinale kezagarriak daude. Benetako arriskua dugu datozen 10 urteetan, igaro diren 15 urteetan bezala: adostasun berriak agintzen duena baino gutxiago egitea giza garapenaren alde.

Asko lortu da lehenengo Giza Garapenari buruzko Txostena egin zenetik. Oro har, garapen bidean dauden herrialdeetako jendea osasuntsuagoa da, hezkuntza hobea du eta pobrezia gutxiago. Gainera, gero eta gehiago dira alderdi politiko anitzeko demokraziatan bizi direnak. 1990.

urtetik, garapen bidean dauden herrialdeetako en bizi itxaropena bi urte inguru igo da. Urtero 3 milioi haur gutxiago hiltzen dira eta 30 milioi haur gutxiago daude eskolatik kanpo. Ez hori bakarrik, 130 milioi lagunek baino gehiagok lortu dute pobrezia gorriaren hatzaparretatik ihes egitea. Horrenbestez, giza garapenaren lorpen hauek ez lirakeke gutxietsi behar.

Baina ezta puztu ere. 2003an, 18 herrialdek -460 milioi biztanle guztira- giza garapenaren indizean (GGI) 1990ean baino puntu gutxiago lortu zituzten, inoiz ezagutu ez den atzerakada eginez. Munduko ekonomia oparoa hazten ari den bitartean, 10,7 milioi haurrek ez dute beren bosgarren urtebetetzea ezagutuko, eta 1.000 milioi lagun baino gehiago miseria gorrian bizi dira, egunean dolar bat baino gutxiagorekin. Bestalde, GIB/HIES pandemikoak ekarri du giza garapenaren atzerakadarik handiena. 2003an, 3 milioi heriotza eragin zituen eta beste 5 milioi lagun kutsatu. Ondorioz, milioika haur umezurtz geratu ziren.

Munduko integrazioa dela-eta, herrialdeen arteko loturak estutzen ari dira. Ekonomiari dagokionez, jendearen eta herrialdeen arteko distantzia oso bizkor ari da murrizten, merkataritzak, teknologiak eta inbertsioak herrialde guztiak interdependentziazko sare batean lotzen baitituzte. Giza garapenari dagokionean, berriz, herrialdeen arteko tartea oso handia da eta desoreka ikaragarriak daude diru-sarreretan eta bizitzako aukeretan. Kasu batzuetan, gainera, desoreka horiek gero eta handiagoak dira. Herrialde batzuetan (gizateriaren bostena, hain zuzen), jende askori ez zaio gehiegi iruditzen kafe capuccino bategatik egunero 2 dolar ordaintzea. Gizateriaren beste bosten bat, berriz, egunean dolar bat baino gutxiagorekin bizi da, eta beren herrialdeetan haurrak hil egiten dira eltxoengandik babesteko ohe sarerik ez izateagatik.

XXI. mendearen hasiera dugun honetan, banatutako mundu batean bizi gara. Banaketa handi hori funtsezko erronka da munduko giza komunitatearentzat. Erronkaren zati bat etikoa eta morala da. Nelson Mandelak 2005ean esan zuen moduan, "munduak bere aurrerapenak (zientzian, teknologian, industrian eta aberastasun metaketan) harrotasunez erakusten dituen garai honetan, jende ugari bizi da pobrezian eta desoreka itzelak daude. Horiekien amaitu beharra dago, gizarteko zoritxar diren esklabotzarekin eta apartheidarekin batera". Badago pobrezia eta desorekei aurre egiterik, baina aurrerapenak gora-beheratsuak eta irregularrak izan dira.

Herrialde pobreek bezalaxe, herrialde aberatsen ere irudi hau aldatu egin nahi dute. Esan be-

zala, aberastasunak desorekak sortzen ditu eta giza komunitatea bananduta dago. Eta hori desagerrarazteko ez dago ondorengo jokoan murgildu beharrik: "batzuek irabazteko, besteek galdu egin behar dute". Esate baterako, herrialde pobreetako jendeak bizitza luze eta osasuntsuak izateko, beren haurrek behar bezalako hezkuntza jasotzeko eta pobrezian ez bizitzeko aukera emateak ez dio kalterik egiten herrialde aberatsetako jendearen ongizateari. Aitzitik, elkarrekin lortutako oparotasuna handitu egiten da eta segurtasun kolektiboa indartzen lagunduko du. Mundu interkonektatu honetan, jende ugari pobrezian oinarritutako etorkizuna ez da ekonomikoki eraginkorra, ezin zaio politikoki eutsi, ezta moraliki babesik eman ere.

Bizi itxaropenean dauden aldeak dira oinarritzko desoreken artean handienetakoak. Egun, Zambiano biztanle batek 30 urtera iristeko aukera gutxiago ditu 1840ko Ingalaterran jaio zen norbaitek baino. Aldea handitzen ari da, gainera, eta GIB/HIESA da arazoaren muina. Europan Izurri Beltzaren ondoren izan zen demografia zartakorik handiena Frantziak bizi izan zuen Lehenengo Mundu Gerran. Bizi itxaropena 16 urte inguru jaitsi zen. Horrekin alderatuz, gaur egun Botswanan bizi itxaropena 31 urte inguru jaitsi da GIB/HIESaren eraginez. Egun eragiten ari den heriotzez gain, susperraldia ekarriko lukeen gizarte eta ekonomi azpiegiturak suntsitzen ari da GIB/HIESa. Gaixotasuna sendaezina da oraindik. Baina milioika lagunen bizitza salbatu ahal izango zen baldin eta nazioarteko komunitateak egoera hain larria izan arte itxaron ez balu.

Haurren heriotza tasa da giza garapenerako aukeren aldeak hobekien islatzen dituen adierazlea. Munduko haurren heriotza tasak jaisten ari dira, baina joera hori gero eta geldoagoa da, eta herrialde aberatsen eta pobreen arteko aldea, berriz, gero eta handiagoa. Esparru horretan, gainera, geldotze alderako joerek heriotza gehiago esan nahi dute. 1980ko hamarkadan izandako aurrerapenari eutsi izan balitzaio 1990az geroztik, aurten 1,2 milioi haur gutxiago hilko lirakeke. Sahara azpiko Afrikan haurren heriotzak gora egin du: mundu guztiko jaiotzen % 20 izaten da lurralde horretan, eta haur heriotzen % 44 (1. mapa). Hala ere, atzerakada Sahara azpiko Afrikatik haratago doa. Globalizazioaren herrialde "arrakastatsuenetan" (Txina eta India barne) ez dira gai izan lortutako aberastasunarekin eta diru-sarrerekin haur heriotza azkar jaisteko (3. taulako 1. irudia). Giza garapenean oso errotuta dago desoreka, eta horixe da arazoaren muina.

Batera hartuta, munduko 500 pertsona aberatsenek diru gehiago irabazten dute 416 milioi pobreenek baino

Haurren heriotza gehienak eragoz daitezke. Ekonomi hazkunde azkarrago batek haurren heriotza tasa murriztu egingo luke, baina heriotza tasak behar baino altuagoak dira. Zergatik? Kostu baxuko eta teknologia gutxi behar duten esku-hartze eraginkorrak egin ez direlako (eta hori barkaezina da), eta pobrezia eta desorekak eragiten dituzten egiturazko arrazoiak bideratzean huts egin delako.

Haurren heriotzetan eragin handiena izan zuten 23 esku-hartze mota azaltzen ditu 2003an *The Lancet*-en argitaratutako herrialdekako ikerketa batek. Horietatik 15 prebentziozkoak ziren eta beste zortziak, berriz, sendatzezkoak. Esaterako: aho bidezko berhidratazio terapia, sendagaiak, malaria-aren aurkako intsektizidaz tratatutako ohe sareak eta jaiotako aurreko laguntza eta obstetriziazko zaintza. Gehienak kostu txikiak eman daitezke, trerabatutako osasun langileen eta bertako komunitateen bidez. Ikerketaren egileek ondorio hau ateratu zuten: 2000. urteko datuak kontuan hartuta, esku-hartze horiek % 100eko estaldura izanez gero, 6 milioi haur gutxiago hilko liratekeela, hots, bi heren gutxiago.

Nazioarteko komunitateak bizi duen giza garapeneko arazorik larrienetakoari aurre egin diezaiogekula azpimarratzen dute aurkikuntzek. Gaixotasun kutsakorrek eta infekzio sistematikoek (pneumonia, septizemia, beherakoa eta tetanosa, esaterako) haurren heriotzetatik bi heren eragiten dituzte, eta gehienak prebenitu daitezke. Beherakoak eta pneumoniak eragiten dituzten 2,5 milioi heriotzetatik kopuru oso handia murriztu liteke erakunde publikoek babestutako komunitate mailako laguntzekin. Esku-hartze horien lehentasunak desberdinak dira herrialde batean eta bestean, eta irtenbidea ez da bakarra. Halere, guztien arazo dira zerbitzuak gutxi estalita egotea, pobrezia eraginiko desoreka handiak izatea eta osasun publikoaren politikan jaiotako berrien hilkortasuna alde batera uztea.

Batzuen ustez, ezinezkoa da Milurtekoko Garapen Helburuetako bat lortzea: haurren heriotza tasa bi heren murriztea. Eta badira ideia hori indartzen duten mito batzuk. Hona hemen ohikoena:

- **1. mitoa.** Heriotza tasa azkar jaitea garestiegia da. Ez da egia. Herrialde batzuek finantza muga handiak dituzte, eta beraz, laguntza handiaren beharra. Baina, haur heriotzari dagokionez, inbertsio txikiak ere egin daitezke. Duela gutxi eginiko nazioarteko ikerketa batean, zenbait esku-hartze mota identifikatu zituzten eta, ikerketaren arabera, heriotza tasa altuko 75 herrialdetan esku-hartze horiek % 90eko estaldura izanez gero, heriotza tasa % 59 jaitsiko litzateke; hau da, 2,3 milioi bizitza salbatuko lirateke. Kostua: 4.000 milioi dolar edo, bestela esanda, herrialde garatuaren bi eguneko gastu militarra.
- **2. mitoa.** Teknologia aurreratuak dira arrakastaren giltza (zaintza intentsiboko unitateak, esaterako). Ez da egia. Heriotza tasak azkar murriztu ziren Suedian, XIX. mende bukaeran, eta Erresuma Batuan 1945. urteaz geroztik, honako neurri hauei esker: dohainezko jaiotako zaintza, jaiotzan arreta trerabatua eskaintzea, eta antibiotikoak eskuragarriago izatea. Garapen bidean dauden herrialde batzuetan ere (esaterako, Malaysian eta Sri Lankan) jaiotako berrien heriotzen beharrekada nabarmena lortu zuten

auzo mailan antolatutako etxez etxeko esku-hartze simple batzuei esker. Horretarako, osasun langileak eta emaginak trerabatu zituzten, diru publikoaz finantzaturik.

- **3. mitoa.** Herrialde pobreetan erakundeek ez dute eskala handian jarduteko gaitasunik. Ez da egia. Erakundeak garrantzitsuak dira, baina herrialde pobre askok aurrerapen handiak izan dituzte erakunde egiturak irudimen pixka batez erabilia. 1980. urteaz geroztik, Egipto izan da haur heriotzan beharrekadatik azkarrenetakoa izan duen herrialdeetako bat. Bangladeshek, Hondurasek, Nikaraguak eta Vietnamek ere aurrerapen bizkorra izan dute. Kasu guztietan, eskualde mailako osasun programa deszentralizatuak egin dituzte, haurrentzako eta amentzako osasun programak uztartuz (besteak beste, txertoak, beherakoaren tratamendua eta jaiotako zaintza). Gainera, osasun langileak eta emaginak trerabateaz gain, biztanle ahulenengan jarri dute arreta. Herrialde pobreenek ere badute eskala handian jarduteko ahalmena. Maharashtra estatuan (India), hiru urteko proiektu pilotua jarri zuten martxan, jaiotako oinarritzko zaintza zabalduz 39 herrixkatan. Etxez etxeko zaintza eta esku-hartze sinpleak (pertsoneko 5 dolarreko kostukoak) ziren programaren ardatz nagusiak. Programaren hasieran –lehen fasean, 1993-1995– haurren hilkortasun tasa 75ekoa zen (bizirik jaiotako 1.000 haurreko) eta hiru urte geroago 39raino jaitea lortu zuten. Alboko estatu batean, 77ko hilkortasun tasa 75era jaitea baino ez zuten lortu denbora epe berean.


Aurrerapenak azkar egiteko ahalmen horrek gaur egun oso baliabide gutxi jartzen direla adierazten du. Sahara azpiko Afrikan emakumeen % 40k baino gutxiagok erditzen dute treraburiko emaginen baten laguntzaz eta Hego Asian, berriz, % 30ek baino gutxiagok. Urtero 60 milioi emakumek baino gehiagok erditzen dute treraburiko laguntzaile baten laguntzarik gabe. Bestetik, zerbitzuen erabilpenean dauden desorekek (2. atalean jorraturiko gaia) arazoa areagotu besterik ez dute egiten. Emakume pobreenek malnutrizioa izateko arrisku handiagoa dute, bai eta zerbitzuak eskuratzeko aukera gutxiago ere, horiek ez daudelako eskuragarri, garestiegiak direlako edo kalitate eskasa dutelako. Zerbitzuen horniduraz gain, genero desberdintasun handiek ere arazoa areagotu egiten dute. Hainbat kalkuluren arabera, haurdunaldien artean tarte handiago utziz gero, heriotza tasa % 20 jaitsiko litzateke Indian eta % 10 Nigerian –horiek dira, hain zuzen, jaiotako berrien heriotza tasa handiena duten herrialdeak–. Ugalketa kontrolik ez egotea da arazoaren muina, eta horrek zerikusi zuzena du etxeko botere desorekarekin eta antzeko beste arrazoi batzuekin.

Haur heriotzak murrizteko benetako trabak ez dira instituzionalak edo finantzarioak, nahiz eta bi eremu horietan ere mugak egon. Konpondu beharreko arazo ugari dago: zerbitzuen kalitate eskasa eta finantziario gabezia kronikoa, esate baterako. Bestetik, pobrezia murrizteko estrategiek arreta handiagoa eskaini beharke liekete hilkortasun tasa altuak eragiten dituzte arazo estrukturalak, eta horiei lotutako hainbat faktoreri: esaterako, emakumeen estatus txarrak, osasun zerbitzuak eskuratzeko zailtasunak, eta haurren eta amen osasunari lehentasunik ez eman izana.

Iturria: Cousens, Lawn eta Zupan 2005; Mills eta Shilcutt 2004; Wagstaff eta Claeson 2004.

Munduko errentaren banaketaren joerei buruzko eztabaidak pil-pilean jarratzen du. Gutxiago eztabaidatzen da, ordea, banaketa horren desoreka berari buruz. Batera hartuta, munduko

500 pertsona aberatsenek diru gehiago irabazten dute 416 milioi pobreenek baino. Bestetik, egunean 2 dolar baino gutxiagorekin bizi diren 2.500 milioi lagunek (munduko biztanleriaren % 40)



Oharra: mapa hau ez dago eskalan egina, estilizatuta baizik. Ez du adierazten inongo herrialderen zein lurralderen estatus legalari edota mugei buruzko jarrera jakinik.

Iturria: haurren heriotzari eta Lehen Hezkuntzako matrikulazioari buruzko 2005b-eko NBERen datuetan oinarrituta egindako kalkulua; argibide gehiagorako ikus Technical note 3 txosten osoan.

“Gure herritarren osasun maila hain geldo hobetzeak erabat kezkatu gaitu. Ez diogu osasun publikoari behar bezalako arreta eskaini”.

Manmohan Singh, Indiako lehen ministroa, 2005eko apirila⁽¹⁾.

Globalizazioaren adibide arrakastatsutzat aurkeztu izan da India. Azken bi hamarkadetan hazkunde ekonomikoa munduko lehen mailara igo da, punta-puntako teknologiararen esportazioek gorakada izan dute, eta Indiako klase ertaineko kontsumitzaileak –handitzen doan gizarte maila, alegia– oso erakargarri bihurtu dira atzerriko inbertitzaileentzat. Hala ere, Indiako lehen ministroak zinez jakinarazi duen bezala, giza garapenean lortutako emaitzak ez dira globalizazio kontuetan lortutakoak bezain ikusgarriak izan.

Pobrezian bizi direnen ehunekoa 90eko hamarkadaren hasierako % 36tik gaur egungo % 25 – % 30 izatera pasa da. Zerbaki zehatzei buruz asko eztabaidatzen da, ikerketetako datuekin arazoak baitaude. Dena den, garbi geratzen da hazkunde ekonomikoak ez duela pobrezia proportzio berean murriztu. Eta hori bakarrik ez: haur heriotzen jaitsiera geldotzen ari da;

ondorioz, egun India MGHetan ezarritako mailetatik kanpo geratzen ari da. Indiako hegoaldeko hiri batzuk teknologian gorakada itzela izan arren, Indiako 11 haurretatik 1 bost urte bete aurretik hiltzen da teknologia sinpleko eta kostu baxuko esku-hartzeen gabeziagatik. Malnutrizioaren arazoa ez da ia hobetu azken hamarkadan eta herrialdeko haurren erdiari eragiten dio. Nesken 1/4 eta mutilen 1/10ek baino gehiagok ez dute Lehen Hezkuntza egiten.

Zergatik ez du errenta hazkunde azkar horrek pobrezia azkarrago gutxitzea ekarri? Pobrezia gorria iparraldeko estatu pobreetako landa eremuetan pairatzen dute (besteak beste, Bihar, Madhya Pradesh, Uttar Pradesh eta Mendebaldeko Bengalen). Hazkundea, berriz, dinamikoagoa izan da beste estatu batzuetan, hiri eremuetan eta zerbitzu sektorean. Estatu batzuetan –esaterako, Gujarat eta Tamil Nadu–, landa eremuetako pobrezia berehala jaitsi den arren, iparraldeko estatuetan aurrerapen txikiagoa izan dute. Indian, oro har, langabezia igotzen ari da landa inguruetan, ekoizpena ez da % 2 baino gehiago hazten urtean, nekazarien soldatak bere horretan (hurrengo orrialdean jarraitzen du)


Indiako estatuen arteko desberdintasunak

Adierazlea	India	Kerala	Bihar	Rajasthan	Uttar Pradesh
Emakumeak (guztirako biztanleen %tan)	48	52	49	48	48
Bost urtetik beherako haurren hilkortasun tasa (bizirik jaiotako 1.000 haurreko)	95	19	105	115	123
Ugalkortasun tasa guztira (jaiotzak emakumeko)	2,9	2,0	3,5	3,8	4,0
Osasun profesionalen laguntzaz izandako jaiotzak (%tan)	42	94	23	36	22
Txerto guztiak jasotzen dituzten haurrak (%tan)	42	80	11	17	21

Iturria: IIPS eta ORC Macro 2000.

Hezkuntzako desorekek aurrerapena oztopatzen dute

Bost urtetik beherako haurren hilkortasun tasa (bizirik jaiotako 1.000 haurreko) DPT txertoen tasa (haurren %)



Iturria: IIPS eta ORC Macro 2000.

direla. Emakumeen hilkortasun tasak altuagoak dira gizonezkoenak baino 30 urtera arte, eta ohiko demografia eredia erabat aldatzen du honek. Genero desberdintasun hauek erakusten dutenez, indiar gehienek semeak nahiago dituzte, iparraldeko estatuetan batez ere. Beren anaiak baino gutxiago baloratzen dituzte neskatilak, eta gaixotasuna aurreratuago dagoenean eramaten dituzte medikuarengana. Gainera, prestakuntza gutxiagoko sendagileengana eramateaz gain, diru gutxiago gastatzen dute nesken osasuna zaintzen. Emakumeek pairatzen duten estatus baxuak eta hezkuntza desabantailak eragin zuzena dute beren osasunean eta haien haurrenean. Indiako haurren herenak pisu txikiegia dauka jaiotzen denean, eta horrek amaren osasuna eskasa dela erakusten du.

Osasun publiko desegokiak arriskua areagotu egiten du. Haur gutxietan txertoak emateko erabakia hartu zenetik hamabost urte igaro badira ere, osasunari buruzko ikerketek diote haurren % 42k bakarrik jasotzen dituztela txerto guztiak. Haurren hilkortasun tasarik handienak dituzten estatuetan jartzen dira txerto gutxien; Biharen eta Uttar Pradeshen, hain zuzen, haurren % 20ri baino gutxiagori jartzen dizkiete. India munduko lehenengotakoa izango da ordenagailuentzako software zerbitzuen alorrean, baina landa eremuetako haurrentzako oinarriko immunizazioari dagokionean, emaitzak ez dira hain ikusgarriak.

Generoen arteko desberdintasuna da giza garapenaren arazorik larrienetakoa. Emakumeen hezkuntzak berez du garrantzia, baina haurren hilkortasunarekin ere lotura zuzena du. Ama analfabetoa bada, bost urtetik beherako haurren heriotza tasa bi aldiz handiagoa da, Bigarren Hezkuntza burutu duten emakumeen haurren aldean (ikus irudia). Haurrek malnutrizioa izateko arrisku gutxiago izateaz gain, amek hezkuntza hobea jasotzen dutenean oinarriko osasun zerbitzuak erabiltzeko joera handiagoa dute, haur gutxiago izaten dituzte helduago direnean eta denbora tarte handia

tan daude eta hazkundea, nola-bait esatearren, geldituta dago, ez baitu lanpostu gehiegirik sortzen. Errenta hazkunde nazionalako % 1ek 1990eko hamarkadan sortutakoan halako hiru lanpostu sortzen zituen 1980ko hamarkadan.

Giza garapenaren aldetik, Indiak bizi duen arazorik larriena aurrekoek utzitako herentzia da. Batez ere genero desberdintasun handiek, landa eremuetako pobrezia eta estatuen arteko desorekak zailtzen dute giza garapena hazkunderaren bidez bultzatzea.

Behar bada, hau da genero desoreka handiena erakusten duen datua: 1-5 urte bitarteko neskailek mutikoez baino % 50eko arrisku handiagoa dute hiltzeko. Honek esan nahi du 130.000 neskatila “desagertzen”

uzten dute haurdunaldien artean; faktore horiek guztiak eragin positibo dute haurren biziraupenerako. Neskaileen oinarriko eskubidea urratzeaz gain, Indian hezkuntza desorekek haur gehiago hiltzea eragiten dute.

Estatuen arteko desorekak generoan eta errentan oinarritutako desorekekin elkarreraginean aritzen dira (ikus taula). Haurren heriotzen erdiak baino gehiago lau estatutan gertatzen dira: Bihar, Madhya Pradesh, Rajasthan eta Uttar Pradesh-en, hain zuzen (ikus irudia). Estatu horietan daude, gainera, Indiako genero desberdintasunik handienak. Keralaekin duten aldea txundituta uzteko modukoa da. Uttar Pradesh-en jaiotako neskailek bost aldiz aukera gehiago dituzte Kerala jaiotako neskailek bost urte betetzeko, bi aldiz gehiago eskolara joateko eta, ziurrenik, 20 urte gehiago biziko dira. Desberdintasunaren arrazoia hauxe da: iparraldeko estatuetan –hilkortasun tasa handiko estatuetan, alegia– ez dago osasun zerbitzuen hornidura egokirik. Eta horrek zerikusiz zuzena du estatu mailako gobernu egiturek gai horretan ardurarik ez izatearekin.

Arrakasta ekonomikoa giza garapenaren aurrerapen bihurtzeko politika egokiak aplikatu behar dira, ondorengo helburu hauek betetz: hazkunde ekonomikoaren eta mundu integrazioaren irabazien banaketa orekatuagoa izatea, landa eremuetan eta zerbitzuetan inbertsio publikoa gehitzea, eta, batez ere, lidergo politiko sendoa eskuratzea, gobernu kudeaketa kaskarrari amaiera emateko eta genero desorekaren erroan dauden arrazoiak bideratzeko.

Zenbait zantzu itxaropentsuk adierazten dutenez, badirudi horrelako aitzindaritzak sortzen ari dela. 2005ean Indiako gobernuak 1.500 milioi dolarreko programa abiarazi zuen, National Rural Health Mission izenekoa (hau da, Landa Osasunerako Misio Nazionala). Programa horrek 300.000 herrixkatan jardutea du helburu eta, hasieran, arreta berezia emango zaie iparraldeko eta ipar-ekialdeko estatu pobreenen. Gainera, osasun publikorako gastua errenta nazionalaren % 0,9tik % 2,3ra igotzeko konpromisoa hartu dute. Hezkuntzarako gastua ere igo egin da. Asmo handiko inbertsio publikoak egin dituzte landa azpiegiturak hobetzeko –edateko uraren hornikuntza eta errepideak barne–, landa eremuetan hazkundera bultzatzeko eta pobrezia lehenbailehen murrizteko baldintzak sortzeko ahaleginean.

Diru gehiago inbertitzeko konpromisoak emaitza onak eman ditzan nahitaezkoak izango dira banaketa eraginkorra izateko eta zerbitzu publikoak hobetzeko neurriak. Eredu berritzaileen faltarik ez dago. Himachal Pradesh eta Tamil Nadu estatuetan, esaterako, aurrerapen handia izan dute hezkuntza alorrean. Horretarako, batetik, aurrekontua handitu dute; bestetik, zerbitzu hornitzaileen ardurak gehitu dituzte, bai eta pizgarriak sortu ere (adibidez, doako jatordua eskolan, bekak eta doako testuliburuak). Familia pobreenen parte-hartzea areagotzea da xedea.

Nolanahi ere, oso zaila da aurrekoengandik jasotako herentziari buelta ematea. Oso zaila da hamarkadatan giza garapenean inbertsio gutxi egin duen eta genero desberdintasunak oso erroturik dauzkan egoera iraultzea. Oso maila handiko lidergo politikoa behar da erronka horiei aurre egiteko. Baina lidergo hori lortu ezearan eta osasun eta hezkuntza aukerak guztiak zabaldu ezearan –genero eta errenta mugak gaindituz– Indiak oztopo handiak izango ditu etorkizunean ekonomia globalizatuan taxuz jardun ahal izateko.

1. BBC News 2005a

Iturria: BBC News 2005a; Cassen, Visaria eta Dyson 2004; Kijima eta Lanjouw 2003; Joshi 2004; Dev 2002; Drèze eta Murthi 2001.

mundu guztiko errentaren % 5 besterik ez du jasotzen. Eta aberatsenen % 10ek (gehienak errenta handieneko herrialdeetan bizi dira) aberastasunen % 54 dute (2. irudia).

Munduko desoreka handiaren adierazgarri nabarmena dugu honako hau: goikoen eta behekoen arteko banaketan aldaketa txikiak ere izugarritzko eragina izan dezakeela pobrezian. Munduko errentaren banaketari buruzko datu base bat erabiliz kalkulatu genuen 300.000 milioi dolarreko kostua izango lukeela egunean dolar batekin bizi diren 1.000 milioi lagun muturreko pobrezia atalasetik ateratzea. Kopuru hori munduko aberatsenen % 10aren errentaren % 1,6 da. Irudi honek transferentzia estatikoa islatzen du, jakina. Egia da pobrezia murrizketa iraunkorra lortzeko beharrezko dela programa dinamikoak sortzea, horien bidez jende eta herrialde pobreek muturreko pobreziatik ateratzeko bidea eraikitzeko. Baina gure mundu desorekatuan berdintasun gehiago izatea garrantzitsua izan liteke pobrezia murrizteko eta Milurtekoko Garapen Helburuak betetze aldera aurrerapausoak emateko.


Zer-nolako ondorioak ditu egungo munduko giza garapenaren ibilbideak MGHk lortzeko orduan? Galdera horri erantzun nahian, herrialdekako datuak hartu ditugu kontuan. Izan ere, horiek erabilia aurreikuspen bat egin dugu, 2015ean MGH nagusiekiko munduko egoera nolakoa izango den jakiteko. Lortutako irudia ez da itxaropentsua. Egungo joerek jarraitzen badute, alde handiak egongo dira MGHen eta emaitzen artean. Alde horiek estatistikaren bidez azal daitezke, baina estatistika horien atzean jende arruntaren bizitzak eta itxaropenak daude. Giza kostuak ezin

dira inoiz neurtu zenbaki hutsen bidez. Dena den, 2015erako gure aurreikuspenak kostuen eskala adierazten digu (ikus 1. grafikoa, Milurtekoko Garapen Helburuak ez lortzearen giza kostua). Egungo joerei eutsiz gero, garapen bidean dauden herrialdeek ondorio hauek jasango dituzte, bestek beste:

- Haurren hilkortasuna murrizteari dagokionez, MGHetan ezarritakoa baino 4,4 milioi haur gehiago hilko dira 2015ean. Londresen, New Yorken eta Tokion bizi diren 5 urtetik beherako haurren halako hiru da kopuru hori. Datozen 10 urteetan, helburuen eta egungo joeren arteko aldea dela-eta, 41 milioi haur gehiago hilko dira bosgarren urtemugara iritsi aurretik azkarren senda daitekeen gaixotasunak jota: pobreziaak jota, hain zuzen. Ezin esan emaitza hori Milurtekoko Adierazpenean munduko haurrak zaintzeko egindako promesarekin erraz parekatzeko modukoa denik.
 - Pobrezia erdira murrizteko helburuari dagokionez, berriz, aurreikusitako emaitzen eta errealitatearen arteko aldeak hauxe ekarriko du: 380 milioi lagun gehiagok bizi beharko dute egunean dolar 1 baino gutxiagorekin 2015ean.
 - Haur guztiek Lehen Hezkuntza amaitzeko xedea ere ez da beteko egungo joerak jarraitzen badu: 47 milioi haur egongo dira eskolatu gabe 2015. urtean.
- Hauk egungo joeren arabera aurreikuspen hutsak dira; eta joerak ez dira nahitaezko patua. Finantza merkatuak erakusten duen moduan, iraganeko emaitzek ez dute zertan izan etorkizunekoak. Hori, zalantzarik gabe, oso berri

1. irudia Txina eta India atzean haur hilkortasun tasa


Bost urtetik beherako haurren hilkortasun tasa (bizirik jaiotako 1.000 haurreko)



Iturria: NBE 2005b.

2. irudia Non dago dirua?

2000. urteko munduko errenta, biztanleriaren pertzentilen arabera banatuta Biztanleriaren eskualdekako banaketa, sarrerren % 20ko multzotan (%)




- 1 Herrialde aberatsak (ELGE)
- 2 Ekialdeko eta Erdialdeko Europa eta EIK
- 3 Latinoamerika eta Karibea
- 4 Ekialdeko Asia eta Pazifikoa
- 5 Hegoaldeko Asia
- 6 Sahara azpiko Afrika

Iturria: Dikhanov 2005.

Haur hilkortasunaren giza kostua

5 urtetik beherako haurren heriotzak (milioitan)




Defizita

Sahara azpiko Afrika	3,0
Estatu arabiarrrak	0,3
Ekialdeko Asia eta Pazifikoa	0,3
Hegoaldeko Asia	0,8
Latinoamerika eta Karibea	0,0
GBHak guztira	4,4

Ur garbia ez izatearen giza kostua

Pertsona kopurua (milioitan)

Zenbat lagun daude ur garbirik gabe?




Defizita

Sahara azpiko Afrika	278,2	198,6	80,1
Estatu arabiarrrak	46,7	19,0	6,7
Ekialdeko Asia eta Pazifikoa	419,0	190,7	14,6
Hegoaldeko Asia	232,6	108,9	103,6
Latinoamerika eta Karibea	55,0	8,1	4,9
GBHak guztira	1.036,6	525,2	209,9

Pobreziaren giza kostua

Pertsona kopurua (milioitan)

Zenbat geldituko dira pobrezia egoeran?




Defizita

Sahara azpiko Afrika	313,0	352,7	218,7
Estatu arabiarrrak	7,0	9,8	7,5
Ekialdeko Asia eta Pazifikoa	271,0	17,2	7,5
Hegoaldeko Asia	431,0	395,0	101,4
Latinoamerika eta Karibea	50,0	51,0	44,4
GBHak guztira	1.072,0	826,7	379,9


Eskolan matrikulatu gabeko haurrak: giza kostua

LHko adinean eskolatik kanpo dauden haurrak (milioitan)



Eskolan matrikulatu gabeko neskatilak: giza kostua

Eskolatik kanpo dauden Lehenengo Hezkuntzako adinako neskatilak (milioitan)



Iturria: Hona hemen kalkuluak egiteko oinarritzat erabili direnak: NBEren 2005b (bost urtetik beherako haurren hilkortasun tasari eta ur baliabide tratatuak eskura dituzten pertsonen buruzko datuak); NBEren 2005d (jaiotzei, populazioari eta populazioaren hazkunde tasei buruzko datuak) UNESCO 2005 (eskolara joaten diren haurrei eta eskolara joaten diren neskatilari buruzko datuak); UNICEF 2005d (eskolatik kanpo dauden haurrei buruzko datuak); Munduko Bankuaren 2005 (egunean dolar 1 baino gutxiagorekin bizi den jendeari buruzko datuak). Xehetasun gehiagorako ikus *Technical note 3* txosten osoan.

Haurren hilkortasuna murrizteko xedea ez da lortuko: salbatu zitezkeen 4,4 milioi haur hilko dira 2015ean

ona da Milurtekoko Garapen Helburuentzat. NBEko Idazkari Nagusiak esan zuen moduan, “Milurtekoko Garapen Helburuak bete daitezke 2015erako, baina horretarako ezinbestekoa da parte-hartzaile guztiak betiko joerekin lehenbait lehen amaitzea eta ekintzak berehala bizkortu eta aurrera egitea”. Munduko herrialde pobreenetako batzuek –Bangladesh, Uganda eta Vietnam-ek, adibidez– erakutsi dute posible dela aurrerapenak azkar egitea. Alabaina, herrialde aberatsek hasierako kostuen ardura hartu beharko dute munduko giza garapenaren abiadan.

Gobernuak 2005eko NBERen gailurrerako prestatzen ari diren bitartean, 2015erako aurreikuspena ohar gisa datorkigu. Argi eta garbi esanda, mundua giza garapeneko hondamendirantz doa, eta hori adierazten duten zantzuak oso begi-bistakoak eta nabarmenak dira. Hondamendi horrek eraginda, eragotzi zitezkeen haur heriotzak gertatuko dira, haur gehiago geldituko dira hezkuntzarik gabe, eta pobrezia gutxitzeko aukerak galduko dira. Hondamendia aurreikus daiteke, baina saihestu ere bai. Gobernuak Milurtekoko Garapen Helburuak betetzeko konpromisoa serio hartzen badute, ez du balio betiko kontuekin beti bezala jarraitzeak. NBERen 2005eko gailurrak datorren hamarkadarako ibilbide berria marrazteko aukera emango du.

Desorekaren garrantziaren arrazoiak

Herrialde barruko giza garapenaren aldeak herrialdeen arteko aldeak bezain latzak dira (3. irudia). Alde horiek aukera berdintasunik eza adierazten dute: jendea baztertu egiten da generoatik, talde identitatearengatik, errentagatik edo bizi den lekuan bizitzeagatik. Desberdintasun horiek ez dira bidezkoak. Ekonomiaren aldetik, xahubide dira, eta gizartearen aldetik, berriz, ezegonkortasuna sortzen dute. Muturrerako ezberdintasunak sortzen eta betikotzen dituzten indar estrukturalak gainditzeko, gizarte ongizatea hobetzeko eta MGH lortzeko aurrerapausoak egiteko.

Oinarritzko giza eskubideak errespetatzeko nazioarteko asmoaren funtsezko adierazpen dira MGH eurak. Eskubide hauek (hezkuntzarako, genero berdintasunerako, haurtzaroen bizirauteko eta bizitza duina izateko eskubideak, alegia) berez dira unibertsalak. Horregatik, MGH lortzeko aurrerapenak guztientzat izan behar lukete, familia errete, generoari edo bizi lekuari erreparatu gabe. Hala ere, aurrerapenak neurtzeko, go-

bernuek batez besteko nazionalak hartzen dituzte kontuan, eta batez besteko horiek aurrerapenaren desorekak ezkuta ditzakete, hots, errentan, generoan, identitatean eta beste faktore batzuetan oinarritutako desorekak.

Txostenak erakusten duen moduan, desoreka ikaragarri hauei aurre egitean huts egiteak MGH lortzea oztopatzen du. Pobreak eta desabantailak dituztenak atzean geratzen ari dira MGH askotan. Herrialdekako azterketek agertzen dutenez, biztanle pobreenen % 20aren artean haurren hilkortasun tasa erdia bakarrik ari da jaisten munduko batez bestekoarekin alderatuta. % 20 pobreen horiek haur hilkortasunaren banaketa proportziotik gorako zatia dutenez, MGH lortzeko aurrerapen prozesua makaltzen ari da. MGHei bultzada ikaragarria emango lioke giza

3. irudia Errenta desorekak: aukeratutako herrialdeak eta eskualdeak

Gini koefizientea, errentaren banaketa (per capita errenta, erosteko ahalmenaren parekotasuna, AEBetako \$)



Iturria: Eskualdekako datuak, Dihtanov 2005; herrialdekako datuak, 15. adierazle taula.

garapenaren aurrerapen orokorrean pobreenek besteen abiadura hartzeko baldintzak sortzeak. Gizarte bidegabekeriako arrazoietakoa bat ere konponduko luke (4. koadroa).

Mota askotako eta elkarrekin lotuta dauden desorekek desabantailak eragiten dizkiote jendeari. Errenta desberdintasunak handitzen ari dira mundu guztiko biztanleen % 80 biltzen duten herrialdeetan. Maila honetako desoreka oso garrantzitsua da hein batean, banaketa erduen eta pobrezia mailaren artean dagoen loturarenengatik. Brasileko (desoreka handiko eta errenta ertaineko herrialdea) batez besteko errenta Vietnamen (desoreka gutxiko eta errenta txikiko herrialdea) batez bestekoaren halako hiru da. Nolanahi ere, Brasilgo % 10 pobreenen errenta txikiagoa da Vietnameko % 10 pobreenena baino. Errenta desoreka handiak kaltegarriak dira hazkunderako, eta hazkunde horren bidez pobrezia gutxitzeko: ekonomiaren tartaren tamaina txikitu egiten dute, bai eta tarta horretatik pobreek jasotzen duten pusketarena ere.

Gainera, errenta desorekak bizitzako beste aukera desoreka batzuekin batera eragiten du. Familia pobre batean jaiotzeak bizitzeko aukerak murrizten ditu, eta batzuetan hitz horiek hitzez hitz hartuta. Ghana edo Senegaleko % 20 familia pobreenetan jaiotzen diren haurrek bi edo hiru aldiz arrisku handiagoa daukate bost urte bete aurre baino lehen hiltzeko % 20 familia aberatsenetan jaiotzen diren haurrek baino (5. irudia). Desabantailak bizitza guztirako uzten dio arrastoa jendeari. Emakume pobreek aukera gutxiago dute hezkuntza jasotzeko eta haurdunaldian jaiotza aurretiko arreta jasotzeko. Emakume horien haurrek bizirauteko eta eskolatuak izateko aukera gutxiago dituzte. Horrela, pobrezia zikloa betikotu eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen da. Haatik, oinarritzko bizitza aukeren desorekak ez dira mugatzen herrialde pobreetara. Munduko herrialderik aberatsena dugu Ameriketako Estatu Batuak, baina, hor ere, osasunari buruzko ikerketek islatzen dute errentan eta arrazan oinarritutako desoreka handiak daudela (5. taula). Eskualdeen artean ere desoreka itzelak daude. Giza garapenaren faila lerroek herrialde bereko landa eremuak hiri eremuetatik bereizten dituzte, bai eta eskualde aberatsak eskualde pobreetatik ere. Mexikoko zenbait estatutan alfabetatze tasak errenta handiko herrialdeen parekoak dira. Aitzitik, hegoaldeko pobrezia uhaleko estatuetako (esaterako, Guerrero) landa udalerririk indigenetan, emakumeen alfabetatze tasa, gutxi gorabehera, Maliko emakumeenaren parekoa da.


Generoa dugu desabantailaren eragile garrantzitsuenetariko bat. Horixe gertatzen da, adibidez, Asia Hegoaldean. “Desagertutako emakumeen” kopuru ikaragarriak argi erakusten digu arazoa norainokoa den. Desabantaila jaiotzean hasten da. Indian, urte batetik bestera bitarteko haurren hilkortasun tasa % 50 altuagoa da neskatilengan. Beste era batera esanda, 130.000 gaztetxo hiltzen dira urtero bi X kromosomekin jaiotzeak eraginiko desabantailagatik. Pakistanen, berriz, eskolatzeko genero berdintasuna nagusitu izan balitz, 2 milioi neskatila gehiagok edukiko luke hezkuntza izateko aukera.

Giza garapeneko aukeren banaketan desorekak murrizteak berez du lehentasuna politika publikoan; hau da, berezkoa du garrantzia, arrazoi intrinsekoak direla medio. Halaber, oso baliagarria izan daiteke MGHtan aurrera egiteko tresna modura. % 20 aberatsenen eta % 20 pobreenen

Indiako 130.000 gaztetxo hiltzen dira urtero bi X kromosomekin jaiotzeak eraginiko desabantailagatik

4. irudia Errenten tarta banatzen

% 20 pobreenen zatia (%tan), 2003



Iturria: 15. adierazle taula

Denok gara amatasunaren eta sagar tartaren aldekoak. Era berean “pobreen aldeko hazkundera” aldekoak gara. Kontzeptu horrek –eta duela gutxi sortutako aldagarria: “elkarbanatutako hazkundera”– adierazten du hazkunderaren kalitatea nahiz kantitatea garrantzitsuak direla pobrezia murrizteko. Baina mundu guztiak ez du kontzeptua modu berean ulertzen. Mundu Bankuak eta garapenerako nazioarteko erakundeek, adibidez, pobreen aldeko hazkunderaren definizio absolutua defendatzen dute. Definizio horretan, garrantzitsuena ez da pobreen errentak batez besteko errentetik hazten ari diren ala ez, baizik eta zenbateko azkartasunaz handitzen ari diren errentak, desorekei jaramonik egin gabe. Pobreen aldeko hazkundera mota hori, beraz, bateragarria izan daiteke desoreka gero eta handiagoekin, baita dagoeneko desoreka itzelak dituen herrialdeetan ere.

Txostenean pobreen aldeko hazkunderaren definizio progresista hartu dugu kontuan, pobreen posizio erlatiboa azpimarratuz (desorekak kontuan izanik, alegia). Banaketa arloko aldaketa txikiak pobrezia murrizketan aurrerapen handiak egiteko duten gaitasuna azpimarratzen du.

Desberdintasun semantiko hutsak ote? Ala eragin zuzena dute giza garapenean? Desberdintasunak puztu egin daitezke: eztabaidan jarduten duten alde guztiak pobrezia azkar murriztea nahi dute. Era berean, inork ez du esaten desoreka txikiak egotea berez ona dela pobrezia murrizteko. Izan ere, hala balitz, Beninek (hazkunde txiki eta desoreka gutxi herrialdea; 90eko hamarkadan 36 inguru zuen Gini koefiziente) Txina baino hobeto legoke. Hor bi auzi garrantzitsu daude jokoan, eta biek lotura zuzena dute ekonomi hazkunderaren eta banaketaren arteko orekarekin.

Iturria: Kakwani, Khandker eta Son 2004; Ravallion 2005; DFID 2004b.


Lehenengoa justizia sozialarena da. Definizio absolutuaren arabera, banaketa neutraleko hazkundera pobreen aldekoa da: pobreen errentak handitzen dituen edozein hazkunde jo daiteke pobreen aldekotzat. Baina zaila da hori justizia sozialaren oinarriko ideiekin uztartzea. Brasilen biztanle guztiak hazkunde igoeren zatia jasoko balute, egungo banaketa ereduaren arabera, % 20 aberatsenek dolarreko 85 zentimo jasoko lituzkete; % 20 pobreenek, aldiz, 3 zentimo besterik ez. Denak (pobreak barne) suertatu dira onuradun; beraz, definizio absolutuaren arabera, hazkundera pobreen aldekotzat jo daiteke. Baina pobreen ongizateari garrantzi handiagoa ematen bazaio, garbi geratzen da banaketa eredu hori ez datorrela bat bidezkoasunarekin eta justizia sozialarekin.

Bigarren kezka, aurrekoarekin lotuta izanik, honela defini dezakegu: zer egin hazkunde ekonomikoak pobrezia murrizten lagundu dezan? Pobrezia murrizteko hazkunderaren eragina ahalik eta gehien handitzea funtsezko helburua baldin bada, orduan banaketa ere garrantzitsua da. Gainerako faktoreak berdinak izanik, pobreek hazkunderatik jasotako zatia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta azkarrago murriztuko da pobrezia. Pobreek hazkunde gehigarritik jasotako zatia handiagoa bada, oparotasun azkarrago murriztu ahal izango du pobrezia eta,aldi berean, hazkunde tasa orokorrak gora egingo du.

Hazkunderaren ikuspegi aurrerakoiak egiturazko desoreketan jartzen du arreta. Izan ere, desoreka horiek direla-eta, pobreek eta baztertutako taldeek ezin dute berdintasun handiagoz parte hartu hazkunderan, ezta hazkunderatik dagozkien zatia jaso ere. Ikuspegi aurrerakoiak birbanaketa proposatzen du –hazkunderarekin batera– pobrezia gorria murrizteko gai zerrenda politikoaren muinean.

5. irudia Pobreen haurrek hiltzeko arrisku handiagoa dute

5 urtetik beherako haurren heriotzaren banaketa, errenta kintilen arabera (%tan)



Iturria: Bost urtetik beherako haurren hilkortasunari buruzko datuetatik kalkulatu (Gwatkin eta argitaratze bidean dauden beste iturri batzuk).

haurren hilkortasun tasean arteko aldea murriztuz gero, heriotzak ia bi heren jaitsiko lirake: urtean 6 milioi bizitza baino gehiago salbatuko lirake eta MGHen bidean jarriko litzateke mundua berriro, hau da, haurren heriotza bi heren gutxitzea lortuko genuke.

Sarreraren banaketa orekatuago batek asko lagunduko luke pobrezia azkar murrizten. Familiaren diru-sarrerari eta gastuei buruzko azterketak erabiltzen ditugu ondorengo hazkunde ereduaren simulazioak egiteko: pobrezian bizi diren biztanleek egun jasotzen duten diru-sarrera nazionalaren banaketaren bikoitza jasoko lukete etorkizunean. Pobreen aldeko hazkunderaren bertsio honek 19 urteetara gutxituko luke Brasilen pobrezia erdira jaisteko denbora; Kenyaren kasuan, aldiz, 17 urtera. Ondorioz, pobrezia gutxitzerakoan hazkundera bezain garrantzitsua da banaketa. Honek sarrera baxuko herrialdeentzat bezalaxe balio du erdi mailako sarrerak dituzten herrialdeentzat ere. Sarreraren banaketa egokiagorik gabe Sahara azpiko Afrikak hazkunde ikaragarria, ezinezkoa, beharko du 2015. urtea baino

Osasun zaintzan beste inork baino gehiago gastatzen dute Estatu Batuek. Ekonomi Lankidetzarako eta Garapenerako Erakundeko kideen batez bestekoak baino bi aldiz gehiago gastatzen dute osasun zaintzan, hots, BPGaren % 13. Haatik, Estatu Batuek baino dezente gutxiago gastatzen duten herrialde batzuek biztanle osasuntsuagoak dituzte. AEBetako osasun publikoak desoreka itzelak ditu hainbat arlotan: diru-sarrerak, osasun aseguruaren estaldurak, arraza, etnia, geografia eta –denetan larriena– osasun zerbitzuen eskuragarritasunari dagokionez.

AEBetako aberastasun ekonomikoari erreparatuz pentsatuko genukeena baino askoz baxuagoak dira bertako osasun adierazlerik garrantzitsuenak. Haurren hilkortasun joerak dira batez ere kezka-garriak. 1950eko hamarkadatik 2000. urtera arte haurren hilkortasun tasa etengabe jaitsi bazen ere, 2000tik aurrera joera hori geldotu, gelditu

eta hori bakarrik ez: atzera egiten hasi zen, hots, hilkortasun tasak gorantz jo zuen. Orain, herrialde industrial askotan baino handiagoa da Estatu Batuetako haurren hilkortasun tasa. Malaysian (Estatu Batuetako sarreraren batez bestekoaren laurdena dute) Estatu Batuen haur hilkortasun tasa bera izatea lortu dute (1. irudia). Eta Kerala (India) haurren hilkortasun tasa baxuagoa da Washingtoneko afroamerikarrena baino.

Talde sozio-ekonomikoen arteko osasun desberdintasun

handiek argitzen dute, alde batetik, zergatik diren Estatu Batuetako osasun sistemaren emaitzak okerragoak beste herrialde industrial-takoak baino. Sehaskatik hilobira arte, AEBetako herritarren osasunak erakusten du izugarriko desberdintasunak daudela. Esaterako, arraza eta etniarekin zerikusia duten osasun desberdintasunak esanguratsuak dira oso: aseguru, sarrera, hizkuntza eta hezkuntzaren ondorio, besteak beste (2. irudia). Emakume afroamerikarrek emakume zuriek baino bi aldiz arrisku handiagoa dute pisu gutxiko haurra erditzeko. Beren haurrek bi aldiz arrisku handiagoa dute urtea bete aurretik hiltzeko. Diru-sarrera desberdintasunak lotura zuzena dute osasun desberdintasunekin. AEBetako % 5 aberatsenen artean jaiotako mutiko batek % 25 bizitza luzeagoa izango du % 5 pobreenen artean jaiotako mutiko batek baino.

Faktore askok eragiten dituzte osasun desorekak. Eragile garrantzitsu bat osasun zaintza hornitzen duen aseguruaren estaldura da. Osasun aseguru sistema unibertsala ez duen herrialde aberats bakarra dira Estatu Batuak. Lanean nagusiaren bidez lortutako aseguru sistema pribatua eta osasun publikoa ezaugarri dituen sistema mistoa ez da inoz

iritsi estatubatuar guztiengana. Nahiz eta biztanleen erdiak nagusien birtartez egindako aseguru duen eta jende heldu gehienak Medicare zerbitzua kontratatuta duten, helduak ez diren sei estatubatuarretatik batek baino gehiagok (45 milioi lagun) ez zuen osasun aseguruik 2003an. Aseguruik ez duten hispanoak (% 34) askoz gehiago dira halakorik ez duten estatubatuar zuriak baino (% 13); eta afroamerikarren % 21ek ez du inolako osasun aseguruik. Bestalde, osasun aseguruaren estaldura oso desberdina da 50 estatuetan, ondorengo faktoreen arabera: sarrera baxuak dituzten familien banaketa, lana nolakoa den eta estatu bakoitzeko Medicaid programa zenbateraino iristen den diru-sarrera txikiak dituzten jendearengana.

Beste edozein herrialde industrial handitan baino areago, Estatu Batuetan tratamenduaren kostua oztipo itzela da osasuna eskuragarri izateko orduan. Aseguruik ez dutenen % 40 gaixo dagoenean, ez du tratamendua jasotzeko ohiko lekurik, eta herenak baino gehiagok dio kostuarengatik ez zuela osasun zaintzarik izan iaz, ezta gomendatutako tratamendua eta agindutako sendagaia ere.


Osasuna eskuragarri izateko desorekek lotura zuzena dute emaitzetan. Aseguruik ez dutenek ohiko zaintza gutxiago jasotzen dituzte; beraz, gehiagotan eramatzen dituzte ospitaleetara saihesteko moduko osasun arazoengatik. Behin ospitalean bertan, aseguruak dute gaixok baino zaintza gutxiago jasotzen dituzte, eta ondorioz, hiltzeko arrisku handiagoa dute. Prebentziorako zerbitzu gutxiago ere izaten dituzte. Medikuntza Institutuaren arabera, urtero 18.000 estatubatuar hiltzen dira behar baino lehenago, osasun aseguruak ez izateagatik. Aseguruik ez duen familia batean jaiotzen diren haurrek % 50eko arrisku handiagoa dute urtea bete aurretik hiltzeko.

Osasuna eskuragarri izateko desorekek eragin handia dute arrazari lotutako osasun desoreketan. Horiek aseguru eta sarrera desorekekin azaltzen dira hein batean. Ikerketa batek erakusten duenez, afroamerikarren eta estatubatuar zurien artean dauden osasun aldeak berdinduz gero, urtero 85.000 bizitza inguru salbatuko liriteke. Ideia hau bere testuinguruan jartzeko, medikuntza alorreko hobekuntza teknologikoei esker, urtero 20.000 bizitza inguru salbatzen dira.

Konparazio honek AEBetako osasun sistemaren paradoxa azpimarratzen du. Osasun zaintza pertsonalean egiten diren gastu handiek herrialdeko medikuntza eta tratamenduetarako teknologia aurreratua dutela erakusten dute. Alabaina, gizarte desorekek, osasun finantzaketako desorekekin bat, medikuntzaren aurrerapena mugatzen dute.

1. irudia Haurren hilkortasun tasak


2003ko haurren hilkortasun tasa (heriotzak, bizirik jaiotako 1.000ko)



Iturria: Indiako datuak, IIPS eta ORC Macro 2000; AEBetako datuak, Henry Kaiser Familiaren Fundazioa 2005; datu nazionalak, 10. adierazle taula.

2. irudia Osasun aseguruak, pobrezia eta arraza AEBetan

Osasun aseguruik gabeko biztanleria (%tan)



Iturria: Henry Kaiser Familiaren Fundazioa 2005.

Iturria: Rowland eta Hoffman 2005; Proctor eta Dalaker 2003; Munnell, Hatch eta Lee 2004; Henry Kaiser Familiaren Fundazioa 2005; Deaton 2002.

Nazioarteko laguntza da pobrezia-aren aurkako armarik eraginkorrenetako bat

lehen pobrezia erdira jaisteko. Esan beharra dago, gainera, desoreka gutxitzeko konpromiso irmoak, pobrezia murrizteko estrategia zabalago batean, gehitu egingo lukeela herrialde emaleen laguntza.

Munduko sarreren banaketa oinarri hartuta egiten dira nazio simulazioak, eta proba horietako gehiago egiteak azpimarratu egiten du desoreka gutxitzeak zenbat onura ekartzen dituen munduko pobrezia murrizterakoan. Honelako ereduak erabiliz, galdetzen dugu zer geratuko ote litzatekeen egunean dolar 1 baino gutxiagorekin bizi den jendeak etorkizuneko hazkundean izango duen banaketa bikoiztuko balitz. Emaizta honako hauxe izango litzateke: 2015. urtean, heren bat (258 milioi lagun) gutxiago biziko da egunean dolar 1 baino gutxiagorekin (6. irudia).

Honelako probek nolako emaitzak lor daitezkeen erakusten dute. Emaizta hauek lortzeko, gobernuen politikek norabide berria hartu beharko dute. Ardura gehiago jarri beharko litzaioteko zerbitzu publiko eskuragarriagoak eta merkeagoak izateko eta hazkundearen banaketan pobreek zati handiagoa jasotzeko. Ez dago sarreren banaketa egokiagoa lortzeko egitasmo finkorik. Herrialde askotan, bereziki Sahara azpiko Afrikan, neurriak behar-beharrezkoak dira minifundioen eta nekazaritza guneen ekoizpen gaitasunari ateak zabaltzeko. Maila unibertsalago batean, hezkuntza da berdintasun handiagoa lortzeko giltzetako bat. Ez hori bakarrik, segurtasuna, pobrezia-erengandik ihes egiteko aukera eta

aldaketa soziala ekarriko duten politika fiskalak ere ezinbestekoak dira.

Honek guztiak ez du esan nahi giza garapenean berdintasun handiagoa lortzea erraza denik. Botere egituratan desoreka itzelak daude errotuta eta horien eraginez jendeak merkataritza aukerarik ez du, zerbitzuen eskuragarritasuna mugatuta dute eta, batez ere, parte-hartze politikoa ukatzen zaie. Boterearen gaixotasun hauek kaltegarriak dira merkataritzaren garapenerako eta egonkortasun politikorako eta, nola ez, oztopo handiak MGHak lortzeko.


Nazioarteko laguntza: kantitatea handituz, kalitatea hobetuz

Nazioarteko laguntza da pobrezia-aren aurkako armarik eraginkorrenetako bat. Baina, gaur egun, arma hori gutxi erabiltzen da, ez dauzka helburuak argi, eta berrikuntzaren premian dago. Nazioarteko laguntza sistema berritzea funtsezkoa da berriro ere MGHen ibilbidean sartu ahal izateko.

Herrialde aberatsetan jendeak batzuetan uste du laguntza norabide bakarreko karitate ekintza dela. Ikuspuntu hori, ordea, lekuz kanpo dago. Mehatxuak eta aukerak elkarlotuta dauden mundu honetan, egin behar morala bezainbeste, inbertsioa ere bada nazioarteko laguntza; bai, elkarbanatutako oparotasunean, segurtasun kolektiboan eta guztion etorkizunean eginiko inbertsioa da laguntza hori. Gaur egun behar bezainbeste ez bada inbertitzen, biharko egunean ordaindu beharko dugu.

Milurtekoko Adierazpenean sortutako garapenerako itun berriaren oinarri da garapenerako laguntza. Itun guztietan bezala, ardurak eta betebeharrak dauzkate bi aldeek. Garapen bidean dauden herrialdeen ardura da emaitzarik onenak ekarriko dituen giroa sortzea. Herrialde aberatsetek, euren aldetik, beren promesak betez jarduteko egin beharra daukate.

Laguntza eraginkorra izan dadin hiru baldintza bete behar dira. Lehenik, giza garapenaren abiadari bultzada emateko gai izango den laguntza eman beharko da. Laguntzarekin, osasun, hezkuntza eta ekonomi azpiegituretan hainbat inbertsio egiteko baliabideak dituzte gobernuak. Azpiegitura horiek beharrezkoak dira gabezia zikloekin amaitzeko eta ekonomiaren susperraldia babesteko; eta baliabideek bat etorri behar dute finantza hutsunearekin. Bigarrenik, transakzio kostu baxukoan eta aurreikusteko moduan banatu behar da laguntza. Hirugarrenik,



laguntza eraginkorrak “herrialdearen jabegoa” eskatzen du. Garapen bidean dauden herrialdeen ardura da emaitzarik onenak ekarriko dituen giroa sortzea. Kantitatea handitzen eta kalitatea hobetzen aurrerapenak egin badira ere, baldintza hauek ez dira oraindik bete.

Milurtekoko Adierazpena sinatu zenean, garapenerako laguntzaren edalontziaren hiru laurdenak hutsik zeuden, eta gainera, ontziak itoginak zituen. 90eko hamarkadan mozketak handiak egin ziren dirulaguntzetan; Sahara azpiko Afrikari emandako per capita laguntza, adibidez, heren bat jaitsi zen. Egun, dirulaguntzaren edalontzia ia erdi beteta dago (7. irudia). 2002an, Garapenerako Finantzaketari buruzko Montereyko Kongresua izan zen laguntzaren susperraldiaren hasiera. Orduetik, urteko % 4 handitu da laguntza, hau da, 12 milioi dolar (2003ko dolar iraunkorretan). Orain, herrialde aberatsek beren barne produktu gordinen (BPG) % 0,25 inbertitzen dute laguntzan; 1990ean baino gutxiago da, baina goranzko joera dago 1997tik. Bestalde, benetan itxaropentsua da Europar Batasunaren konpromisoa: 2010. urterako % 0,51ra igotzea lankidetzarako kopuru hori.

Hala ere, aurkeztutako gehikuntzak osorik ematen badira ere, Milurtekoko Garapen Helburuak finantzatzeko defizit handia dago oraindik ere. Defizit hori hazi egingo da 2006ko 46.000 milioitatik 2010eko 52.000 milioitara. Hutsunea bereziki handia da Sahara azpiko Afrikaren kasuan. Izan ere, bost urtean laguntza bikoiztu egin

beharko da MGH lortzeko aurreikusitako kostua izateko. Laguntza gehituz finantza hutsunea betetzea ez bada lortzen, gobernuak ezingo dituzte egin inbertsioak osasunean, hezkuntzan eta azpiegituratan, eta horiek beharrezkoak dira ongizatea hobetzeko eta susperraldi ekonomikoa babesteko eta, azken finean, MGHak lortzeko.

Herrialde aberatsek jendaurrean laguntzaren garrantzia agertzen badute ere, ekintzek ez dute urrunetik ere betetzen beren hitza. G8 barnean hiru herrialdek (Italia, Estatu Batuak eta Japonia) oso gutxi ematen dute, Ekonomi Laguntza eta Garapenerako Erakundearen Laguntzarako Batzordean dauden 22 herrialdeen artean gutxien ematen dutenak baitira. Bestetik, baikorrago izanik, esan daiteke Estatu Batuek ematen dituztela munduan laguntzarik handienak: 2000. urtetik 8 mila milioi dolar areagotu du laguntza eta berak ematen dio orain Sahara azpiko Afrikari beste inork baino diru gehiago. Asmo handiagoko helburuak finkatzea ere ongi etorriko da. Dena den, laguntza helburuak finkatzen lan handiegirik ez dute egin emaleek, eta diru kopuru handiak ematen dituzten herrialde batzuk ez dute konpromisorik hartu finkatutako helburuak betetzeko (6. taula). Joan diren 15 urteak kontuan izanda, datozen 10 urteetan aldaketa handia egin beharko da MGHak bete nahi badira. Herrialde aberatsetan 1990etik izandako operatasunak eskuzabaltasun gutxi eragin du: per capita sarrerak 6.070 dolar igo badira ere, laguntza dolar 1 jaitsi da. Kopuru hauek iradokitzen dute globalizazioaren irabazleek ez diotela lehentasunik eman galtzaileei laguntzeari, nahiz eta laguntza hori emanez eurek ere irabazi egingo luketen.

Laguntzaren finantzaketa gabezia larriak erakusten du gastu publikoaren lehentasunak okertu egin direla. Segurtasun kolektiboa gero eta gehiago lotzen da pobrezia eta desorekaren arrazoi ezkutuekin. Haatik, herrialde aberatsek laguntzan gastatzen duten dolar 1eko beste 10 dolar gastu militarretarako erabiltzen dituzte (1. taula). 2000. urtetik gastu militarretan igo den diru kopurua laguntzara bideratzea nahikoa izango litzateke NBERen aspaldiko helburu bat lortzeko, BPGaren % 0,7 laguntzara bideratzea, alegia. Segurtasun militarretik haratago ez da begiratzen, eta horren eraginez inbertsio oso baxuak egiten dira gizakiaren segurtasunean. Ondorioz, mehatxurik handiena egiten zaio gizakiaren bizitzari. GIB/HIESak urtean 3 milioi lagun hertotza eragiten du. Egun gaixotasun hau murrizteko bideratzen den diru kopurua gastu militarretan 3 egunetan xahutzen dena da.


MGHak lortzeko modukoak ote diren galdeztzen da batzuetan. Azken aldia egiteko modukoa dena lehentasun politikoaren gaia da.

Laguntza baldintzatua da pobrezia murrizteko garapenari kalte handiena eragiten dion gehiegikeriarik krudelena

7. irudia

Gehitutako laguntzaren banaketa

2003ko datuak (mila milioi dolarretan)



Iturria: ELGE/DAC 2005f.

G8 taldearen gailurretan aspaldidanik ari dira promesa dotoreak egin eta gero ez betetzen, batez ere munduko herrialde pobreeni dagokienean. Zerbait aldatuko ote da Gleneagleko (Eskozia) 2005eko uztailera bilera eta gero?

G8 taldearen komunikatuak promesa garrantzitsuak egiten ditu. MGHetan dagoen finantza defizita asko txikituko litzateke 2004an baino 50 mila milioi dolar gehiagoko laguntzak ematen badituzte, hazkundearen erdia Sahara azpiko Afrikara bideratuz. Gainera, lehenengo aldiz G8 taldeko buruek helburu zehatzak dituen komunikatua sinatu dute, eta horrek berriro huts egiteko arriskua txikiagotu egin lezake.

Aurrera begira, hiru erronka nagusi daude laguntzari dagokionez. Lehenik, G8 taldeko buruek beren hitza bete behar dute. Arrisku handia dago gutxienez EBko bi herrialdek (Alemaniak eta Italiak) ez dituztela G8-ren bileran aginduta bezala bideratuko gastu publikoak. Bigarrenik, herrialde batzuek askoz gehiago egin behar dute. Laguntzak handitzen badituzte ere, Japoniak eta Estatu Batuek laguntzarako BPGaren % 0,18 bakarrik bideratuko dute 2010. urtean (horrek azken postuan jartzen ditu ELGEren laguntzen taulan), eta Kanadaren laguntzak ere ez dira askoz handiagoak. Hirugarrenik, garrantzitsua da laguntza horietako zati bat bederen laster batean banatzea, eta ez hemendik bost urtera.

Laguntzaz gain, G8-ren komunikatuak alde onak eta txarrak ditu. MGH lortzeko aurrerapausoak ekarriko litzuke doako eta derrigorrezko hezkuntzak, doako oinarritzko osasun zerbitzuak eta GIB/HIESaren tratamendua "ahalik eta unibertsalena" izateko promesak. Halaxe egingo luke, bestalde, Afrikako Batasunean bakea segurtatuko duen operazioetarako 75.000 tropa entrenatzeko eta ekipatzeko 2010erako helburuak (ikus 5. atala). Merkataritzan, aitzitik, G8 taldearen komunikatua etsigarria da. Oro har adostu dutenak ez die lasaitasun handirik emango Afrikako nekazariei. Izan ere, nekazaritzako esportazioetan pixkanaka laguntzak kentzea erabaki dute, denbora tarte finkorik gabe.

Ezinbesteko bi osagai Gleneagleko G8 taldearen gailurra bestelakoa izateko: lidergo politikoa batetik, eta mundu mailako kanpainak eta iritzi publikoak eragindako bultzada politikoa, bestetik. NBERen 2005eko iraileko bileran ere osagai horietan beharko dira baldin eta orain arte lortutakoa sendotu eta areagotu nahi bada.

Iturria: G-8 2005.

Baina egin behar den inbertsio oso baxua da herrialde garatuak aberastasunarekin alderatuta. 2,6 mila milioi lagunek ur garbia eskuragarri izateko, datorren hamarkadan urtero 7 mila milioi dolar behar dira. Inbertsio horrekin egunero 4.000 bizitza inguru salbatuko lirateke. Kopuru hori baino gehiago gastatzen dute europarrek perfumetan eta estatubatuarrek borondatezko kirurgia estetikoan.

Emaileek onartu dute laguntza kalitatearen arazoak konpontzeak duen garrantzia. 2005eko martxoan, Laguntza Eraginkorri buruzko Pariseko Adierazpenak emaileentzako printzipio garrantzitsuak eman zituen laguntzaren eraginkortasuna hobetzeko; baita aurrerapenak neurtzeko helburuak ere. Koordinazioa hobetzen ari da, laguntza baldintzatu gutxiago erabiltzen da, eta herrialdeen jabegoa gehiago ari dira azpimarratzen. Baina azaldutako printzipioetatik urrun

2003ko gastu ofizialen banaketa (%tan)

Herrialdea	GLO	Gastu militarra
Alemania	1,4	7,3
Australia	1,4	10,7
Austria	1,1	4,3
Belgika	2,7	5,7
Danimarka	3,1	5,7
Erresuma Batua	1,6	13,3
Espainia	1,3	6,7
Estatu Batuak	1,0	25,0
Finlandia	1,6	5,4
Frantzia	1,7	10,7
Grezia	1,4	26,5
Herbehereak	3,2	6,5
Irlanda	2,1	4,6
Italia	0,9	9,8
Japonia	1,2	5,7
Kanada	1,2	6,3
Luxenburgo	3,9	4,8
Norvegia	4,1	8,9
Portugal	1,0	10,0
Suedia	2,8	6,4
Suitza	3,5	8,5
Zeelanda Berria	1,2	6,3

Iturria: GLORI buruzko datuak 2005f-ko ELGE/GLZ datu baseetatik kalkulatu daude; gastu militarrei buruzkoak adierazle 20. taulatik hartu dira; eta gobernuen gastuei buruzkoak, azkenik, Munduko Bankuaren 2005f txostenetik.

gelditzen dira ekintzak. Laguntza motz gelditzen da hitz emandakoa betetzera, eta pobrezia murrizteko finantza egitasmoa ahuldu egiten da horrela. Aldi berean, baldintza multzoek askotan ahuldu egiten dute herrialdearen jabegoa eta laguntzak bertan behera uztea eragiten du. Emaileek ez dute nahi izaten sistema nazionala erabiltzea eta horrek transakzio kostuak gehitzen ditu eta herrialdearen gaitasuna ahultzen.

Laguntza baldintzatu da pobrezia murrizteko garapenari kalte handiena eragiten dion gehiegikeriarik krudelena. Garapenerako laguntza eta emandako hornidurak lotzen ditu, eta laguntza jaso duten herrialdeei merkatu zabalera erabiltzen utzi beharrean, diruaren balorea jaisten du. Laguntza ematen duten herrialde asko laguntza baldintzatu gutxiago erabiltzen dute, baina oraindik ere oso zabaldua dago eta guztiz salatu gabe. Laguntza baldintzatuak sarrera baxuak dituzten herrialdeei gutxienez 5 eta 7 mila milioi dolar artean kostatzen zaiela uste da. Sahara azpiko Afrikak 1.600 milioi dolarreko "laguntza baldintzatuaren tasa" ordaintzen du.

Monterreyn finkatutako laguntzaren "itun berriak" mesfidantza sortzen du oraindik ere leku

batzuetan, lehengo itunaren bertsio berria izango ote den beldur baitira. Ardura eta eginbeharren desoreka dago oraindik ere. Laguntza jasotzen dutenek MGH lortzeko xedeak finkatu behar dituzte, Nazioarteko Moneta Funtzak (NMF) hiru hilero bideratzen dituen aurrekontu helburuak bete, emailek jarritako baldintza multzo ikaragarria konplitu eta transakzio kostuak igo eta laguntzaren balioa jaisten duten emaileen ekintzez arduratu. Emailek, aitzitik, ez dute helbururik jartzen beren buruentzako. Horren ordez, laguntzen kantitateari buruzko bete ezin diren promesa lausoak egiten dituzte (eta gero ez diete kasurik egiten) eta laguntzen kalitateari buruz oraindik eta konpromiso lausoagoak egiten dituzte, alferrikakoak denak ere. Laguntza jasotzen dutenek ez, baina ematen dutenek hitza bete gabe utzi dezakete erraz asko. Praktikan, itun berria norabide bakarreko bidea izan da. Behar dena itun berri bat da, benetakoa izango dena. Bertan, emailek eta hartzaileek, biek bete behar dituzte emandako hitzak Milurtekoko Adierazpenaren konpromisoarekin jarraitzeko.

Aurtengo urteak aukera paregabea ematen digu itun hori sortu eta indartzeko, eta garapen laguntzaren lankidetzan norabide berri bat emateko. Lehendabizi, laguntza ematen duten herrialdeek Monterreyn emandako hitza bete eta ekintza bihurtu behar dute. Ondorengo betebeharrak dituzte, besteak beste:

- *Programa bat ezartzea 2015erako BPGaren % 0,7 laguntzarako bideratzeko (eta horri eutsi).* Emailek aurrekontu bat egiteko konpromisoa hartu behar lukete 2010erako gutxienez % 0,5 emanez, 2015erako asmoa inongo arazorik gabe bete ahal izateko.
- *Ordaindu ezin den zorrari aurre egin.* 2005eko G8 bilerak aurrerapena ekarri zuen zor handia duten herrialde pobreen zorpetzeari dagokionez. Hala ere, arazo ugari dago oraindik, diru-sarrera txikiak dituzten herrialde askok zailtasun handiak baitituzte zorra ordaintzeko. Zorren krisiarekin amaitzeko beharrezkoa izango da herrialdeen estaldura handitzea eta zor ordainketak MGHein bat datozela ziurtatzea.
- *Gobernuen programez osatutako finantzaketaz hornitu, eta hori aurreikusteko modukoa eta urteetan egitekoa izan dadila.* Laguntza Eraginkorriari buruzko Parisko Adierazpenaren oinarrituta, emailek asmo handiagoko helburuak finkatu beharko lituzkete laguntza iraunkorrako emateko, sistema nazionalen bidez eta gaitasuna sortuz. 2010. urterako gutxienez laguntzen % 90ek ordainduta egon behar luke, adostutako pro-

gramen bidez eta urteroko edo hainbat urtetako eredu bidez.

- *Baldintzak eraginkor egitea.* Laguntzen baldintzek bi aldeen konfiantza eta gardentasuna izan behar dute sistema nazionalen bidez. Hala, eremu zabaleko makroekonomiari garrantzi gutxiago eman eta erakundeak eta herrialdearen gaitasuna sortzeko konpromiso handiagoa hartu behar da.
- *Laguntza baldintzatuarekin amaitzea.* Diru alferrik galtzen uzteko eta arazo honi konponbidea emateko era bakarra dago: 2006an laguntza baldintzatuari amaiera ematea.

Merkataritza eta giza garapena: loturak estutuz

Laguntza bezalaxe, merkataritza ere eragile garrantzitsua da giza garapenerako. Baldintza egokitan, nazioarteko merkataritzak bultzada indartsua eman diezaiok MGH lortzeko aurrerabideari. Arazoa da merkataritzak ezkutuan duen gaitasuna gutxitu egiten dela herrialdean bertan eta herrialdeen artean dauden bidegabeko arauekin eta desoreka estrukturalekin.

Nazioarteko merkataritza izan da globalizazioa gidatu duen motorrik indartsuenetakoa. Merkataritza ereduak aldatu egin dira. Garapen bidean dauden herrialde askok hazkunde iraunkorra izan dute munduko manufaktura esportazioetan, eta herrialde batzuek teknologian zuten aldea gutxitzen ari da. Nolanahi ere, egiturak desorekatuta jarraitzen dute eta askotan okertzen ari dira. Sahara azpiko Afrika gero eta baztertuago dago. Egun, eskualde horretan 689 milioi lagun bizi dira eta munduko esportazioetan zati txikiagoa du Belgikak (10 milioi lagun) baino. Sahara azpiko Afrikak 1980an zuen munduko esportazioen proportzioa izango balu, 2003an jaso zuen laguntza baino zortzi aldiz irabazi handiagoa izango luke. Latinoamerikako herrialde asko ere atzean gelditzen ari dira. Merkataritzan, beste arlo batzuetan bezalaxe, munduko integrazioa herrialde aberatsak eta pobreak bateratzen ari direla diote, eta hori gehitxo esatea da.

Giza garapenaren ikuspegitik, garapenaren bitarteko bat da merkataritza, eta ez jomuga bera. Esportazio hazkundearen adierazleek, BPGaren tasek eta inportazioak liberalizatzeak ez dute bultzatuko giza garapena. Baina, zoritxarrez, hori uste da azken aldia. Merkataritzan parte hartzeak aukera bikaina ematen du bizi maila hobetzeko, baina merkatuak zabaltzeko eta esportazioa

Laguntza jasotzen dutenek ez, baina ematen dutenek hitza bete gabe utzi dezakete erraz asko

Munduko merkataritza
hormarik altuenak
herrialde pobreenen
aurrean eraikitzen dira

areagotu dutenek (Mexiko eta Guatemala, adibidez) ez dute hainbesteko arrakastarik izan giza garapenari dagokionez (7. koadroa). Esportazioetan arrakasta izateak ez du beti ekarri izan gizakiaren ongizatea. Gertakari hauek erakusten duten moduan, kontu gehiagorekin sartu behar dute herrialdeek munduko merkatuetara.

Merkataritza arau justuagoek lagundu egingo lukete, batez ere merkaturako sarrerari buruz ari garenean. Tasa eredu askotan gradu printzipio simple bat ezartzen da: zenbat eta gehiago irabazi, orduan eta gehiago ordaindu behar da. Herrialde aberatsetako merkataritza politikek, ordea, ez dute printzipio hau errespetatzen. Munduko merkataritza hormarik altuenak herrialde pobreenen aurrean eraikitzen dira: garapen bidean dagoen herrialde batek herrialde aberats batera esportatzen duenean hiruzpalau aldiz horma handiagoa gainditu behar du batez beste, herrialde aberatsek euren artean esportatzerakoan gainditu behar dutena baino. Merkataritza alorreko desberdintasun gaizto horiek beste eremu batzuetara ere hedatzen dira. Esaterako, Europar Batasunak promesa handiak egiten ditu munduko herrialde pobreeni merkatuko atea zabaltzeko. Alabaina, bere sorreratik bertatik merkataritza libreari lehentasuna ematen zaion arren, herrialde pobreeni atea ixten zaizkie.

Bestalde, nekazaritzak kezka handia sortzen du. Egunean dolar 1 baino gutxiagorekin bizi diren biztanleen bi heren nekazaritza guneetan bizi dira eta bertan lan egiten dute. Nekazaritzaren merkataritzako arauak zuzenean eragiten diete beren merkatuari, ogibideari eta pobrezia-erengatik ihes egiteko aukerei. Munduko Merkataritza Erakundearen nekazaritzari buruzko ne-

goziazioetan agertu beharreko oinarritzko arazoa hiru hitzetan laburbildu daiteke: herrialde aberatsen laguntzak (8. koadroa, 8. irudia). Munduko merkataritzako azken negoziazioetan nekazaritzako laguntzak apaldu egingo zituztela hitz eman zuten herrialde aberatsek. Ordutik, handitu egin dituzte. Orain, 1.000 milioi dolar pasatxo gastatzen dituzte urtean herrialde pobreetako nekazaritzari laguntzeko, eta 1.000 milioi baino gutxiago egunean etxeko gainproduktioari laguntzeko; lehentasunek ezingo lukete aldrebesago egon. Okerrago dena, herrialde aberatsen laguntzak merkatua suntsitzen ari dira, eta herrialde pobreetako minifundioak merkatu horren menpe daude; herrialde aberatsek prezioak jaitzen dituzte eta munduko merkataritzan izandako irabazien banaketa ukatzen diete pobreei (9. irudia). Burkina Fasoko kotoia ekoizten duten nekazariak AEBetako kotoi ekoizleekin lehian ari dira. Azken hauek laguntzatan 4 mila milioi dolar jasotzen dituzte urtean, hau da, Burkina Fasoren barne produktu gordina baino gehiago. Bien bitartean, munduko azukre merkatuan harri eta zur ari dira geratzen Europar Batasuneko Nekazaritza Politikarekin. Honek Europako merkaturatan sartzea galarazten die garapen bidean dauden herrialdeei (10. irudia). Azken batean, herrialde aberatsetako kontsumitzaileak eta zerga ordaintzaileak finantza politikatan harrapatuta daude, eta politika horiek munduko herrialde pobreenetakoen ogibideak suntsitzen ari dira.

Arrisku handia dago Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) arauak zenbait arlotan desoreka handiagoak sortzeko, hau da, batetik, garapen bidean dauden herrialdeek bizi dituzten desabantailak handitzeko, eta bestetik, munduko

7. koadroa

Vietnam eta Mexiko: bi globalizatzaileen istorioak

Vietnam eta Mexiko globalizatutako herrialde berrien lehen postuetan daude, adierazle ekonomikoen arabera. Giza garapenaren adierazleak erakusten dutenez, ordea, bi herrialde hauek ez daude maila berean. Merkaturaren parte-hartze handiagoa izan du ezaugarri Vietnameko aurrerapen azkarrak. Mexikon, berriz, esportazioen "arrakastak" ez du giza garapen handirik ekarri (ikus taula).

Viet Nam. 80ko hamarkada amaieran merkatura sartzeko erreformak egin zituztenetik Vietnamek urteko % 5 baino gehiagoko hazkundea izan du, munduko altuenetakoa. Merkataritzan izandako parte-hartzea funtsezkoa izan da: ekoizleei merkatu eta teknologia berrietarako sarbidea eman zaie. Inportazioak eta esportazioak % 20tik gora hazi dira urtero 90eko hamarkadaz geroztik, eta BPGean esportazioek izandako eragina bikoiztu egin da.

Giza garapenean ere aurrerapenak izan dira, gainera, merkataritzaren arrakasta honekin batera. 90eko hamarkadan, pobrezia mailatik behera zeudenen kopurua % 58tik % 28ra jaitsi zen, haurren hilkortasun tasa erdira, eta bizi itxaropena sei urte igo zen. Desoreka hazi egin da, baina maila baxuagoan. Gini koefizientea 90eko hamarkada hasierako 35,7tik hamarkada amaierako 37ra igo zen; hala ere, munduko baxuenetakoa da. Herrialdearen giza garapenaren indizea (GGI), egun, aberastasunarena baino 16 postu gorago dago. Vietnameko arrakastaren arrazoiak ondorengo hauek dira, besteak beste:

- *Giza garapenean lehendik inbertitu izana.* Ekonomiaren pizkundera hasi baino lehen Vietnamek oso sarrera baxuak izan arren, maila bereko herrialdeena baino askoz altuagoak ziren beste adierazle batzuk (eskolan izen emandako haurrak, alfabetatzea, bizi itxaropena...).

(hurrengo orrialdean jarraitzen du)

Munduko integrazioa eta giza garapena: batzuek beste batzuek baino hobeto egiten dute

Herrialdea	Ondasun eta zerbitzuen esportazioak (BPGaren %)		BPG per capita (2002ko AEBetako dolarra)		Pobrezia gorriaren tasa (%tan)				Biztanleriaren % 20 pobreenen diru-sarreraren zatia (%tan)		Gini koefizientea			
	1990	2003	Urteko hazkundearen batez bestekoa 1990-2003 (%)	1990	2003	Urteko hazkundearen batez bestekoa 1990-2003 (%)	Nazioko pobrezia gorriaren muga (a) (%tan)		Nazioarteko pobrezia gorriaren muga (%tan)		1990	2002	1990	2002
							1990	2002	1990	2002				
Vietnam	36,0	59,7	20,2	1.282	2.490	5,9	30,0	15,0	60,0	37,0	..	7,5	35,7 ^b	37,0
Mexiko	18,6	28,4	11,4	7.973	9.168	1,4	22,5 ^c	20,3 ^d	15,8	9,9	..	3,1	50,3 ^c	54,6 ^d

.. Ez dago eskuragarri

a. Herrialdeen arteko konparaziorik ez litzateke egin behar, pobrezia tasa etengabe aldatzen baita.

b. 1993ko datuak

c. 1992ko datuak

d. 2000ko datuak

Iturria: Esportazioei buruzkoa, 16. adierazle taula; per capita errentari buruzkoa, 14. adierazle taula; nazioko pobrezia gorriaren datuak: Mexikoko Secretaría de Desarrollo Social 2005 eta Vietnam, UN 2002; nazioarteko pobrezia gorriari buruzko datuak: Mexiko, Mundu Bankua 2005d, eta Vietnam, UN 2002; Biztanleriaren % 20 pobreenen diru-sarrerak eta Gini koefizientea, 15. adierazle taula.

- *Oinarri zabaleko hazkunde globala.* Milioika minifundiok bideratu zuten hazkundera. Nekazaritza merkatuak liberalizatuz hasi zen erreforma ekonomikoa. Arroza esportatzeko mugak kentzen hasi ziren, ongariak inportatzeko oztopoak gainditzen eta luraren jabe izateko eskubidea zabaltzen. Prezioak igotzen joan ziren eta sarrera kostuak gutxitzen; ondorioz, minifundisten soldatak gorakada itzela izan zuten berehala. Nekazaritza alorreko soldatek, bertako merkataritzak eta eskariak gora egin zuten.
- *Berdintasunaren aldeko konpromisoa.* Vietnamek BPGaren % 16 jasotzen du zergatan, eta hori kopuru altua da sarrera baxuak dituen herrialde baterako. Ondorioz, merkataritzako irabaziak nahiko ondo banatzeko aukera izan zuen gobernuak, gizarte eta ekonomi azpiegituratan inbertituz.
- *Pixkanakako liberalizazioa.* Hazkunde handiak eta esportazioen gorakadak liberalizazioaren inportazioari ekin aurretik gertatu ziren. Muga kuantitatiboak 90eko hamarkadaren erdi aldera gutxitu zituzten, baina batez besteko muga zergek % 15ean jarraitu zuten. Kapitalaren merkatuek itxita jarraitu zuten, Ekialdeko Asian zabaldu zen finantza krisitik babestuta geratu zen Vietnam.
- *Merkatuaren dibertsifikazioa.* 80ko hamarkadaren bukaeran, Vietnameko ekonomia ia osorik Japoniara eta Singapurrera esportatutako petrolioa oinarritzen zen. 90eko hamarkadako politikak dibertsifikazioa bultzatu zuten, bai esportazio gaietan (gaur egun ondasun manufakturatuek heren bat inguru osatzen dute) baita esportazio merkatuei dagokienean ere.

Mexiko. Joan den hamarkadan % 26 inguruko hazkundera izan zuen Mexikoko manufaktura ondasunen esportazioak. Latinoamerika guztiko manufaktura esportazioen erdia inguru saltzen du gaur egun. Gainera, esportazioen gorakada hazkunde eta balio handiko teknologia sektoretan oinarritu da, hala nola, automobilgintzan eta elektronikan.

Aitzitik, esportazioen arrakastaren aldean, 1990 eta 2003 artean per capita errentaren igoera % 1 baino zertxobait gehiagokoa izan da batez beste. Soldata errealak geldituta daude eta langabezia 90eko hamarkadaren hasieran baino handiagoa da. Pobrezia gorria oso gutxi

murriztu da, baina desoreka hazi egin da. Mexikok giza garapenean izan duen porrota Vietnamentan arrakastaren ispluan islatzen da.

- *Desoreka handia hasieratik.* Mexikok munduko Gini koefizienterik altuenetakoa dauka, eta igo egin da pixka bat azken hamarkadan. Vietnamentan jasotzen duten sarrera nazionalen laurdena jasotzen du Mexikoko biztanle pobreenen % 10ek. Errenta baxuek trabatu egin dute hazkunderako gizarte eta ekonomi azpiegiturak garatzeko gobernuak zuen egitekoa. Mexikoren sarrerak Vietnamentan baino bost aldiz handiagoak dira batez beste, baina errenta zerga baxuagoa du, BPGaren % 13, Ugandaren parekoa.
- *Liberalizazio azkarra.* Munduan liberalizaziorik azkarrenetakoa izan duen garapen bidean zegoen ekonomia izan da Mexiko, Merkataritza Libreko Tratatuaren (NAFTA) agindupean. Sektore batzuetan pobrezia ekarri du inportazioa liberalizatzek. Estatu Batuek subentzionatutako artoaren inportazioa sei aldiz igo da 1994an liberalizazioa hasi zenetik. Horren eraginez, Mexikoko arto nekazariak % 70eko atzerakada izan dute. Nekazaritza esportazioetako hazkundera arrantxo komertzial handitan kontzentratu da, eta nekazari txikiak hazitako inportazioen lehiera moldatu behar izan dute.
- *Industria politika ahula.* Puntako teknologiaren gorakada okertzen hasi da. Mexikoko esportazioen erdia "Maquiladora" gunean sortu ziren. Hemen ekoizpena muntaia sinpleetan oinarritzen da, eta inportatutako salgaiak berriro esportatzen dira. Bertako balio erantsi mugatua eta prestakuntza eta teknologia transferentzia ahalak dituzte ezaugarri esportazioek. Soldata eta trebakuntza maila baxuaren menpe dagoen esportazioaren sektoreak babesik gabe utzi du Mexiko, Txina bezalako soldata baxuak dituen ekonomien aurrean. 2001etik aurrerant, 180.000 langabetu gehiago daude.
- *Botere desoreka lan merkatuetan.* Ekoizpena etengabe igo bada ere, errenta errealak ez dira igo esportazioak bezain bizkor, balio erantsi baxuko esportazioetan oinarritu direlako, hein batean. Bestetik, hitzarmen kolektiboa lortzeko zailtasunak eta langabeziaren presioak ere eragin garbia dute. Azkenik, lanaren feminizazioak ere badu zerikusirik, izan ere, batez beste, emakumeen errentak gizonezkoenak baino % 11 baxuagoak dira.

Iturria: Vietnam 2004; NMF 2003b; Audley eta beste batzuk 2003; Oxfam International 2003b.

Izenburuko galderaren erantzuna oso sinplea da: herrialde garatuek hala diotenean. Garapen bidean dauden herrialdeek orain duten arazoetako bat da herrialde industrialek emandako babesia MMEren arauetatik urrunxeago geratzen diren subsidio arloetara mugitu dela. Eta arau horiek EBren eta AEBen eraginpean finkatuta daude.

Uruguayko Nekazaritzari buruzko Akordioan –neurri handi batean Europar Batasunaren eta Estatu Batuen artean egina–, hiru mailatako subsidioak sortu zituzten: Kutxa Anbarrekoak, Kutxa Berdekoak eta Urdinekoak. Kutxa Anbarreko subsidioek MMEen adostutako edozein mozketara izan dezakete. Kutxa Berdeko subsidioak “ez kaltegarritzat” jotzen direnez, onargarriak dira. Eta bi horien artean Kutxa Urdineko subsidioak ditugu: murrizketarik ez dute izaten baldin eta luraren zati bat landu gabe uzten bada. Azken hau EBren presioaren ondorioz sartu zen, Nekazaritza Politika Batuaren erreforma egokitzeko. Izan ere, erreforma horretan, ordainketak jasotzeko ezinbesteko baldintza zen nekazariak lurren zati bat landu gabe uztea.

Zergatik dira garrantzitsuak desberdintasun hauek? Hain zuzen ere, MMEren markoak ez duelako ia inolako bereizketarik egiten herrialde garatuetako gobernuek ematen dituzten nekazaritza subsidioen artean. 2001. urtean (MMEri emandako azken informazioak urte horretakoak dira) Estatu Batuek 50.000 milioi gastatu zituzten Kutxa Berdeko ordainketetan, Kutxa Anbarreko ordainketetan gastatu zuena baino hiru aldiz gehiago (ikus taula). Europarrek, gaingidituak ez izateko, 50.000 milioi gastatu zituzten Kutxa Berdeko eta Kutxa Urdineko ordainketetan, hau da, Kutxa Anbarreko ordainketetan gastatu zutena baino gehiago. Horrela, bi superpotentziek lortu dute subsidioak MME-

ren mugaren azpitik geratzea, baina horretarako, ez dituzte laguntzak moztu, baizik eta berregituratu. Ondorioa, beraz, hau da: EBk eta AEBek nahi zutena lortu dutela, hots, Europari munduko merkatuetan zerealak eta Estatu Batuei arzoa, kotoia, artoa eta beste labore batzuk prezio baxutan saltzen uzten dieten subsidio asko ez dira esportazio subsidiotzat edo merkataritzarentzat kaltegarritzat jotzen eta, beraz, subsidio horiek moztuko lituzketen akordio potentzialetatik salbuetsita geratu dira, beti ere MMEren irizpideen arabera.

Garapen bidean dauden herrialde batzuek dagoeneko erabili dituzte MMEren mahainguruak subsidio jakin batzuk zalantzan jartzeko. Brasilek, adibidez, arrakastaz egin zion aurre AEBen Kutxa Berdeko kotoiaren zuzeneko ordainketak sailkatzeko moduari. Brasilek, Indiak eta Thailandiak ere arrakasta izan zuten EBren azukrearen subsidioei aurre egitean, argi eta garbi utzi baitzuten subsidio horiek ez zezotela bat MMEren arauekin. Hala ere, gero eta arrisku handiagoa dago MMEk nekazaritzako babesia egungo mailan mantenduko lukeen akordio berri bat lortzeko, hots, beste modu batean antolatuta, baina laguntza berberak emanez, ELGEren ekoizleen babesari buruzko irizpideen arabera.

Hori gertatzen bada, sinesgarritasun asko galduko lukete Dohako Biltzarreko nekazaritzari buruzko akordioek. Subsidio guztiek ez dute kalte bera eragiten. Alabaina, urtero nekazaritza ekoizleei ematen zaizkien milaka milioi dolarrek argi eta garbi egiten diote kalte merkatuari, nahiz eta ordainketa horiei “ez-kaltegarri” izena eman. Horixe gertatzen da, batez ere, munduko merkaturako soberakin handiak ekoizten diren sektoreetan. Ordainketa horiei esker, arriskuaren kontrako bermea, inbertitzeko kapital baliabideak eta maileguentzako bermea izaten dute ekoizleek.

Burkina Fasoko kotoi ekoizleen edo Ghanako arroz ekoizleen ikuspegitik, ez du halako garrantzi handirik zer-nolako sailkapena egiten duen MMEk subsidioekin, baizik eta zenbateraino hondatzen duten herrialde aberatsetako subsidioek beren ogibidea. Egungo nekazaritza arauen arzoa da merkataritzako bidegabekeriak instituzionalizatu egiten dituela, nahiz eta MMEren legezkotasunean babespean egin. Eta horrela, arauetan oinarritutako sistema multilateralaren legezkotasuna ahuldu egiten du. Azkenik, Dohako bileren emaitza ebaluatzeko orduan erreferentzi puntuetako bat honako honek izan beharko luke: noraino garatzen diren herrialde garatuen eta garapen bidean dauden herrialdeen arteko lehia bidegabekeria debekatzeko MMEren arauak.

Subsidio handiek ihes egiten diete Munduko Merkataritza Erakundearen arauari

US\$, 2001/02 (mila milioitan)

	Europar Batasuna	Estatu Batuak
Kutxa Anbarra	44,3	14,4
MMEren arauak Kutxa Anbarrean gehienez onartutako laguntza	75,7	19,1
Kutxa Urdina	26,7	0,0
Kutxa Berdea	23,3	5,7

Iturria: MME 2005.


Iturria: AEBtako Nekazaritza Saila, Ekonomi Ikerketarako Zerbitzua 2005b; Watkins 2003b.

integrazioaren irabaziak lehendik aberatsak ziren herrialdeetara bideratzeko. Horren adibide da industria eta teknologia politikaren arloa –eta hori beharrezkoa da produktibitatea igotzeko eta munduko merkatuetan arrakasta lortzeko–. Izan ere, zenbait arau herrialde pobreen politika industrial eta teknologikoa mugatu egiten dute. Egungo MMEren erregimenak legez kanpo uzten ditu Ekialdeko Asiako herrialdeetan aurrerapen azkarra ekarri zuten hainbat politika. Jabego intelektualaren gaineko MMEren arauak bi meha-

txu nagusi dituzte: batetik, teknologiaren transferentzia garestitu egiten dute, eta bestetik, sendagaien prezioa igotzeko ateak zabaltzen dituzte, arriskuan jarriz pobreen osasuna. Zerbitzuei buruzko MMEren negoziazioetan, herrialde aberatsak beren konpainientzako inbertsio aukerak sortzen saiatu dira banketxe eta aseguru alorrean, eta aldi berean, herrialde pobreen aukerak mugatu dituzte haientzat abantaila nabarmeneko den esparru batean: eskulanaren behin-behineko lekualdaketa. Hainbat kalkuluren arabera,

8. irudia

Handiak handiagotzen: herrialde aberatsek nekazaritza emandako laguntza



Iturria: ELGE 2005.

trebakuntza duten eta ez duten langileak pixka bat gehiago mugituko balira batetik bestera, 150 mila milioi dolarreko irabaziak lortuko lirateke urtero; hau da, beste esparru batzuk liberalizata baino askoz ere mozkin handiagoak.


MMEren negoziazioetako Dohako Biltzarren aukera ematen du uztartzen hasteko batetik merkataritzako arau multilateralak eta bestetik giza garapenaren eta MGHen aldeko konpromisoa. Aukera hori alferrik galdu izan dugu. Lau urte eztabaidan jardun eta gero ez da itxurazko ezer lortu. Baina zein da arazoaren muina? Herrialde garatuek jarraitu duten gai zerrenda desorekatua eta nekazaritzako diru-laguntzen arazoa gaintitu ez izana.

Hala ere, merkataritza arau eraginkorrenak ere ez dituzte desagerraraziko munduko merkataritzaren desoreka eragiten duten ezkutuko arazoietako batzuk. Azpiegitura desagokiak eta hornidura gaitasun mugatuaren arazoak daude, adibidez, eta horiek gaintitu beharra dago. "Gaitasun eraikuntza" deituriko laguntza programa garatu dute herrialde aberatsek (9. koadroa). Zoritzarrez, gehiegizko kontzentrazioa dago herrialde aberatsek estrategikoki erabilgarritzat jotzen dituzten eremuetan. Aspaldiko arazo batzuk agertu ere ez dira egiten nazioarteko merkataritzaren gai zerrendan. Esaterako, krisi handia dago lehengaien merkatuan, batez ere, kafearen merkatuan. Etiopian, kasu, 1998tik prezioak jaisten ari dira eta horren eraginez kafea ekoizten duten familien urteko diru-sarrerak 200 dolar inguru jaitsi dira.

Merkataritza egitura berriak azaldu dira eta hori mehatxua da nekazaritza merkataritza ore-

9. irudia

AEBetako kotoiaren ekoizpena: munduko prezio aldaketei entzungor



Iturria: Nazioarteko Kotoi Aholkularitza Batzordea 2005.

katuagoa lortzeko. Supermerkatu kateak bihurtu dira herrialde aberatsetako nekazaritza merkatuetako sarreren kontrolatzaile. Horrela, garapen bidean dauden herrialdeetako ekoizleen eta herrialde aberatsetako kontsumitzaileen arteko lotura sortzen dute. Dena den, supermerkatu batzuek ez diete erosten nekazari minifundistei, eta merkataritza eta giza garapenaren arteko lotura ahuldu egiten da. Sektore pribatuak berebiziko eginkizuna izango luke pobrezia kontrako borrokan, baldin eta nekazari txikiei munduko marketing kateetan berdintasun handiagor sartzea errazteko baldintzak sortuko balitu.


Merkataritza eta giza garapenaren arteko lotura sendotzeko denbora asko beharko da. Dohako Biltzarren horretan hasteko aukera eskaintzen du, eta merkataritza sisteman oinarritutako arauen sinesgarritasuna eta legezotasuna eraikitzeko ere bai. Testuinguru zabalago batetik begiraturata, biltzarra garrantzitsuegia da huts egiten uzteko. Guztion oinarritasuna eraikitzeko erakunde multilateralak beharko dira, eta hauek ongizate publikoa bultzatu beharko dute, era zuzen eta orekatuan lan eginez beti ere.

2005eko abendurako aurreikusitako MMEren ministroen bilerak erronka premiazoenak bideratzeko aukera emango du. Auzi gehienak teknikoak dira, baina betebeharrak praktikoak ere badago: MMEren arauak giza garapenari on gehiago eta kalte gutxiago eragitea ahalbidetuko duen marko edo testuinguru bat sortzea. Ez litza-

10. irudia

EBeko azukrea: gainproduzitu eta soberakina munduko merkatuetan merke-merke saldu

Euroak tonako, 2003



Iturria: Oxfam international, 2004a.

“Gaitasun eraikuntza” funtsezkoa da garapen bidean dauden herrialdeak munduko merkataritza arrakastaz sar daitezela. Herrialde gara-tuek gero eta lehenetasun handiagoa eman diote beren laguntza progra-metan. Baina gaitasun eraikuntzaren laguntza teknikoaren ahulguneek beren eraginkortasuna apaltzen dute. Horixe gertatzen da Merkataritza alorreko Gaitasun Eraikuntzarako Laguntza Teknikoaren neurriekin (TACB - Trade-Related Technical Assistance for Capacity Building).

Emaleek bideratutako lehenetasunak. TACB gehiegitan izaten dute lehenetasuna emaleek. Dohako Biltzarraren hasieran EBren gai zerrendak lehenetasuna ematen zion lehiaren politikari, merkataritza erraztasunei eta inbertsioari; Singapurreko gai berak, hain zuzen. Garapen bidean dauden herrialde gehienek, bereziki Afrikakoek eta garapen gutxiak duten herrialdeek, errefusatu egin zuten gai zerrenda hori. Hala ere, 2001ean Singapurreko gaiek laguntza tekniko guztiaren erdia hartu zuten merkataritza politikan. Aitzitik, % 1 besterik ez zen bideratu nekazaritzako negozioazietara, eta funtsezko esparrua da hori garapen bidean dauden herrialdeentzako. Programa bilateralean bazterketa bi modura gertatzen da: bazterketa negatiboa (emaleen epe laburreko interesentzat kaltegarriak diren jarduerak alboratuz) eta bazterketa positiboa (emaleek interesatzen zaien esparrutan ematen dute babesa).

Batzuen aldeko aholkularitza mugatua. TACBren aholku gehiegi dira garatutako herrialdeen agindupean eginiko MMEren akordioak nola bete esaten dutenak, horien artean 2001ean finkatutako Global Trust Fund-en gidaritzapean MMEk burututako ekintzak. Aholku gutxiegi

daude botere desorekak nola konpondu eta politika publikoaren helburuak nola bete azaltzen dutenak.

Hornikuntza nahikorik ez. TACBren programa eraginkorrenetakoez hornikuntza falta kronikoa daukate. Horren adibide dira MMEren Laguntza Teknikoaren Programa Integratuaren Batza, Merkataritzari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Erakundearen Konferentzia eta Nazioarteko Merkataritza Zentroa. Programa hau, batez ere, oso begikoa dute Afrikako gobernuak. Hala ere, Funtz Fiduziario Komun batekin finantzatuta dago gaur egun, eta 10 milioi dolar baino ez du ematen 20 herrialderentzat; eta hori ez da ia ezer Afrikako gobernuak MMEan duten desabantaila handia kontuan izanik. Egun, gutxien garatutako herrialdeentzako TACBrako Marko Integratuak jasotzen duen laguntza 6 milioi dolar baino gutxiagokoa da.

Lotura ahulak garapen estrategiekin. TACB garapenerako lankidetzan eta pobrezia murrizteko egitasmoen barnean sartzeko ahalegina oso motz geratu da emaleen aldetik. Eredu Integratuak hornidura mugei buruzko diagnosi ebaluazioak egin ditu, kalitate handikoak hauek, eta batez ere pobreekin zerikusia duten hornidura mugei buruzkoak. Dena den, ezerk ez du frogatzen Pobrezia Gutxitzeko Estrategiaren Txostenean sartu direnik, eta horiek gutxi hitz egiten dute merkataritza politikari buruz. Beraz, Eredu Integratuaren eraginkortasuna are gehiago ahuldu dute koordinazio eskasak, parte hartzen duten erakundeetako aginte gatazkatsu eta elkar-jarriek eta azpiegiturak finantzatzearen gainetik laguntza teknikoa emateko joerak.

Iturria: Deere 2005.

teke errealista izango Dohako Biltzarrak arau-tako desoreka guztiak zuzenduko dituela ustea, baina etorkizuneko biltzarretarako agertokia finkatuko luke. Eta biltzar horien helburua, hain zuzen, giza garapena sistema multilateralaren muina bihurtzea litzateke. Dohako Biltzarreko emaitzak ebaluatzeko erreferentzia puntuen artean honakoak ditugu:

- *Mozketa handiak egitea herrialde aberatsen nekazaritzarako laguntzetan eta esportatzeko subsidioak debekatzea.* Nekazaritzako laguntzek ez lukete izan behar ekoizpen balioaren % 5 edo % 10 baino gehiagokoak (ELGEren ekoizpen babesari buruzko kalkulak erreferentzi gisa hartuta), eta berehala debekatu beharko lirateke zuzeneko eta zeharkako esportazio laguntzak.
- *Garapen bidean dauden herrialdeen esportazioei jartzen zaizkien mugak zeharo jaitea.* Herrialde aberatsek pobreen inportazioei jartzen dizkieten zergek ez lukete izan behar batez besteko tarifen bikoiztetik gorakoak, hots, % 5 edo % 6.
- *Lehenetasuna galtzen ari diren herrialdeei kalte-ordainak ematea.* Inportazioek ira-

bazi gutxi ematen dituzte garapen bidean dauden herrialde batzuetan, baina herrialde aberatsek inbertsio horiek ematen uzten badituzte langabezia handia sor daiteke eta kasu batzuetan ordainketa balantzan zartada itzela ere bai. Fondo bat sortu beharko litzateke herrialde ahulenen ego-kitzapenen kostuak gutxitzeko.

- *Giza garapenerako politika gunea babestea.* Arau multilateralek ez lituzkete inposatu behar pobrezia murrizteko estrategiekin bat ez datozen betebeharrak. Estrategia hauek nazioarteko ekintzarik onenak bideratu behar lituzkete, bertako baldintzatarako mol-datuta eta politika demokratiko eta parte-hartzaile baten bidez eginda. Bereziki, garapen bidean dauden herrialdeek nekazari ekoizleak babesteko duten eskubidea MMEren arauen arabera errespetatu beharko litzateke. Izan ere, herrialde aberatsetan subsidioak jasotzen dituzten esportazioek lehia bidegabea eragiten dute eta hori nekazari ekoizleen mehatxu bihurtzen da.
- *“MMEtik haratago” dagoena saibesteko konpromisoa eskualdeko merkataritza akordioetan.*

Eskualdekako merkataritza akordio batzuek MMEren arauetatik haratago dauden betebeharrak inposatzen dituzte, batez ere inbertsioaren eta jabetza intelektualaren esparruetan. Akordio horiek kontuan izan beharko lituzkete pobrezia murrizteko estrategien tes-tuinguruan garatutako politika nazionalak.

- *Zerbitzuen negoziazioak berbideratzea, lan-gileen behin-behineko leku-aldatzei dagokio-nean.* Garapena lortzeko saiakeran, ez litzaioke eman behar horrenbesteko garrantzia bizkor liberalizatzen ari diren finantza sektoreei. Aitzitik, ahalegin handiago egin behar litzateke garapen bidean dauden herrialdeetako langileei herrialde aberatsetako lan merkatuetara heltzea erraztuko dien arauak sortzeko.

Indarkeriazko gatazkak, aurrerapenerako oztopo

Edward R. Stettinius AEBetako Estatu Idazkari ohiak giza garapenaren oinarrizko bi osagaiak eta beren arteko lotura topatu zituen 1945ean: “Bakearen aldeko borroka bi frontetan egin behar da. Lehenengo frontea segurtasun frontea da, eta hor garaipena beldurrarengandik askatzea da. Bigarrena ekonomi eta gizarte frontea da, eta hor, garaipena gabeziatik askatzea da. Bi frontetako garaipenak bakarrik segurtasun diezaiok munduari bake iraunkorra”. Arrazoiketa honexegatik izan zuten Estatu Batuek funtsezko eginkizuna Nazio Batuen Erakundea sortzerakoan.

Hirurogei urte geroago, eta Gerra Hotza amaitu zela hamar urte baino gehiago igaro direnean, bakearen aro berri bat hasi dela dirudi; segurtasunari buruzko kezka berri ere nagusi dira nazioarteko gai zerrendan. NBEko Idazkari Nagusiak *In Larger Freedom* txostenean argudiatzen duen bezala, gaur egun pobrezia eta indarkeriazko gatazkaren elkarrekintza suntsitzaileak mehatxu ikaragarria suposatzen du, batetik, berehalako biktimentzat eta, bestetik, nazioarteko komunitatearen segurtasun kolektiboarentzat.

Herrialde aberatsetako jende askorentzat, munduko segurtasun eza terrorismoak eta antolatutako krimenak sortutako mehatxuei lotuta dago. Mehatxuak benetakoak dira. Hala ere, beldurrez egoteko askoz arrazoi gehiago dituzte herrialde txiroetan. Pobrezia eta indarkeriazko gatazkaren arteko elkarrekintza milioika bitzita suntsitzen ari da garapen bidean dauden herrialde askotan, eta MGHen aurrerapenean

traba egiten. Elkarrekintza honekin amaitzeko giza segurtasuna eraikitzean huts egiten bada, mundu guztian izango dira ondorioak. Interdependentziako mundu honetan, gatazka bortitzek sortutako mehatxuak ez dira estatuen mugetan amaitzen, nahiz eta horiek indarrez babestu. Herrialde pobreetako garapena da munduko bakea eta segurtasun kolektiboa lortzeko borrokaren gakoa. Eta gaur egungo arazoa honakoa da: estrategia militarrek gehiegi garatuta daude, eta giza segurtasuna, aldiz, gutxiegi.

Gatazka mota berriak sortu dira. Hogeigarren mendeak, gizakiaren historiako odoltsuena, estatuen arteko gerrak izan zituen ezaugarri lehenik; gero, Gerra Hotzean, bi potentzia boteretsuen arteko borrokaren beldurra izan zen nagusi (2. taula). Orain, berriz, tokiko eta eskualdeko gerrak ari dira hedatzen, batik bat herrialde pobreetan, estatu ahula edo hautsia dutenetan, eta arma arinak erabiliz. Biktima gehienak zibilak dira. 1990ean baino gerra gutxiago daude egun, baina herrialde pobreetan lehen baino gehiago.

Indarkeriazko gatazkek giza garapenari egingandako kalteari ez zaio behar bezalako arretarik eskaintzen. Kongoko Errepublikan, gatazkak zuzenean edo zeharka eragindako heriotza kopurua handiagoa da Britainia Handian Lehen eta Bigarren Mundu Gerretan izandako hilen kopurua baino. Sudaneko Darfur eskualdean 2 milioi lagun inguruk lekualdatu behar izan dute gatazken ondorioz. Gatazka hauen eta beste batzuen berehalako biktimak agertzen dira aldizka komunikabideetan, baina indarkeriazko gatazkak giza garapenean denbora luzez utzi duen arrastoa ezkutatuago dago.

Gatazkak elikadura eta osasun publikoa ahultzen ditu, ogibideak suntsitu eta hazkunde ekonomikoa izateko aukerak atzeratu. Giza garapen baxua duten 32 herrialdeetatik 22k gatazkaren bat izan du noizbait 1990etik hona. Indarke-

Pobrezia eta indarkeriazko gatazkaren arteko elkarrekintza milioika bitzita suntsitzen ari da garapen bidean dauden herrialde askotan

2. taula Gatazkek gero eta heriotza gehiago eragiten dituzte

Garaia	Gatazken ondoriozko heriotzak (milioitan)	Munduko biztanleria, mendearen erdi aldera (milioitan)	Gatazken ondoriozko biztanleriarekiko (%tan)
XVI. mendea	1,6	493,3	0,32
XVII. mendea	6,1	579,1	1,05
XVIII. mendea	7,0	757,4	0,92
XIX. mendea	19,4	1.172,9	1,65
XX. mendea	109,7	2.519,5	4,35

Iturria: Gatazketako heriotzen datuak, Sivard 1991, 1996; XX. mendeko biztanleriaren datuak, NBE 2005d; biztanleriari buruzko beste datu batzuk. Giza Garapenaren Txostenaren Bulegoaren interpolazioa, Sykes 2004an oinarrituta (B-10 taula).

Gatazkarako joera duten estatuei laguntza ukatzea kaltegarria da munduko segurtasunerako

riazko gatazka izan duten herrialdeen ehunekoa neurritz kanpoko da 2015erako gure aurreikuspenetan MGHei eusten ez dieten herrialdeen multzoan. Haurren hilkortasun tasa jaisteko edo gelditzeko ahaleginetan ari diren 52 herrialdeetatik 30ek gatazkaren bat izan du 1990etik hona. Kostu hauen handitasunak argi erakusten du gatazka saihestea, gatazkarako konponbidea aurkitzea eta gatazka ondorengo berreraiketa funtsezko hiru baldintza direla giza segurtasuna eraikitzeke eta MGH lortzeko aurrerapena azkartzeko.

Giza segurtasunik eza eta indarkeriazko gatazkak maiz huts egiten ari diren estatu ahul eta hauskorrei lotuta doaz. Jendea arriskuetatik babestu ezina, oinarritzko beharrak ezin asetzea eta zilegitzat jotzen diren erakunde politikoak garatu ezina dira gatazka izateko joera duten estatuen ezaugarriak. Batzuetan, eskualdeen edo taldeen arteko desberdintasun horizontalak dira indarkeria eragiten dutenak. Kanpoko faktoreek ere badute zerikusia, jakina. Adibidez, estatu batzuen “huts egitea”, Afganistan eta Somalia kasu, kanpoko potentzien esku-hartzeko borondateak erraztu zuen, beren helburu estrategikoak lortzeko sartu baitziren. Bestetik, arma inportazioek eta baliabide naturalen salmentetatik lortutako etekinek ere gatazka sustatu eta areagotu ere egiten dute. Gatazkak izateko joera duten estatuetan aldatetarik izateko beharrezko baldintza da lidergo politikoa, baina ez da nahikoa. Herrialde aberatsek ere lagundu behar dute lidergoa sendotzen.

Laguntzaren metodo berriak abiada puntua dira. Estatu ahulek laguntza gutxiegi jasotzen dituzte beren finantzak eraginkortasunez erabiltzeko eta, gainera, aurrez ez dute jakiten laguntzen nondik norakoa. Datuen arabera, erakundeek eta ingurumen politikek justifika lezaketena baino % 40 baxuagoak dira laguntzak. Beste arazo bat da, laguntzak nolakoak diren eta zenbateko jarraipena duten. Emailek, gehiegitan, laguntzeko konpromiso handiak hartzen dituzte gatazka amaitu berritan, baina ez dute laguntza ematen jarraitzen ondorengo urteetan, ekonomi susperraldian.

Mineralen eta beste baliabide natural batzuen esportazioak ez du indarkeriazko gatazka eragiten. Arma arinek ere ez. Baina baliabide naturalen eta arma arinen merkatuak indartsu jarrai dezaten bidea erraz liezaieke indarkeriazko gatazkei. Kanputxeatik hasi eta Afganistan arte, eta Mendebaldeko Afrikako herrialdeetan esportatutako harribitxiak eta zurak gatazka finantzatzeko lagundu dute eta estatuaren gaitasuna ahuldu (3. taula). Ziurtagiri eskemek esportaziorako auke-

rak galaraz ditzakete, diamanteen Kimberley ziurtagiri prozesuan gertatu zen bezala. 500.000 heriotza izaten dira urtean arma arinengatik, gehienak munduko herrialderik pobreenetan. Alabaina, eragin handirik ez du izan merkataritza hilgarria kontrolatzeko nazioarteko ahaleginak. Legeak ez dira beti betetzen, kodeei kasu egitea borondatezkoa da eta, merkataritzan, irtenbide legal handiek aukera ematen diote gehiengoari araudiari ihes egiten.

Eskualdeko gaitasuna sustatzea da modurik eraginkorrenetarikoa herrialde aberatsek mehatxuak –indarkeriazko gatazkak sortutakoak– bideratzeko. Darfurreko krisia arindu ahal izango zen, eta agian galarazi, Afrikako Batasuneko bake indar armatuen presentziarekin –ondo prestatua eta handia izanda, beti ere–, batez ere zibilak babesteko agindu sendoa jaso izan balute. Krisia puntu gorenean zegoenean, Ruan-dako eta Nigeriako 300 tropa baino gutxiago zeuden 1,5 milioi darfuriar kontrolatzeko, Frantziaren tamaina duen eskualde batean. Gizakia- ren segurtasunerako premiazko betekizuna da eskualdeko gaitasuna eraikitzea, prebentziorako alarma sistemetatik hasi eta esku-hartzeetarako gaitasuna lortzeraino.

Indarkeriazko gatazkaren mehatxuak bideratzeko modu eraginkorrena prebentzioa bada, berreraiketarako aukerak jartzea da bigarrena. Bake akordioek askotan indarkeria ekartzen dute berriro ere: herrialdeen erdiak indarkeriazko gatazkara itzultzen dira bost urte baino lehen. Ziklo honekin amaitzeko politika eta finantza konpromisoa behar da segurtasuna emateko, berreraiketa gainbegiratzeko eta denbora luzez merkatu lehiakorak eta sektore pribatua garatzeko baldintzak sortzeko. Konpromiso hori, ordea, ez da beti betetzen.

MGHei aurrerapena ekarri dute “gabeziarengandik askatzeko”, baina munduak oraindik ez du gai zerrenda koherenterik “beldurrarengandik askatzeko”. NBeko Idazkari Nagusiaren *In Larger Freedom* txostenak argudiatzen duen moduan, premiazko beharra dago segurtasun kolektiboko eredu berria garatzeko, terrorismoari erantzun militarra eman bakarrik ez, baizik eta munduko segurtasuna arriskuan jartzen duten mehatxuekin arduratu beharko lukeen eredu. Eredu horrek onartu beharko luke pobrezia, gizarte krisia eta gatazka zibilak mehatxu globalaren funtsezko osagaiak direla. Eta mehatxu hori ahultzeko ondorengoak behar dira, besteak beste:

- *Laguntzari buruzko akordio berria.* Gatazkarako joera duten estatuei edo gatazka igaro berri duten estatuei laguntza ukatzea

3. taula Baliabide naturalek gatazkak eragin dituzte herrialde askotan

Herrialdea	Gatazkaren iraupena	Baliabideak
Afganistan	1978–2001	Harribitxiak, opioa
Angola	1975–2002	Petrolio, diamanteak
Angola, Cabinda	1975–	Petrolio
Birmania	1949–	Zura, eztainua, harribitxiak, opioa
Indonesia, Aceh	1975–	Gas naturala
Indonesia, Papua Mendebaldea	1969–	Kobrea, urrea
Kanputxea	1978–97	Zura, harribitxiak
Kolonia	1984–	Petrolio, urrea, koka
Kongo	1997	Petrolio
Kongoko Errep. Dem	1996–97, 1998–2002	Kobrea, koltana, diamanteak, urrea, kobalto
Liberia	1989–96	Zura, diamanteak, burdina, palmondo olio, kakaoa, kafea, marihuana, kautxua, urrea
Maroko	1975–	Fosfatoak, petrolio
Papua Ginea Berria	1988–98	Kobrea, urrea
Peru	1980–95	Koka
Sierra Leona	1991–2000	Diamanteak
Sudan	1983–2005	Petrolio

Iturria: Bannon eta Collier 2003 (egokitua).

justifika ezina da. Kaltegarria da aipatu estatuetako giza segurtasunerako, eta baita munduko segurtasunerako ere. Emailek eurek laguntza ahalegin handiagoa egin behar lukete denbora luzeko finantza konpromisoak hartzeko BPGaren % 0,7 laguntzara bideratzearen helburua bete ahal izateko. Bestetik, emalek gardentasun handiagoz jokatu beharko lukete, bai laguntzen banaketen inguruan, eta baita gatazkarako joera duten herrialdeetan inbertsioak jaisteko arrazoien inguruan ere.

- *Gardentasun handiagoa baliabideak administrazterakoan.* Nazioz gaindiko konpainiak baliabide naturalen merkatuen zati direnez, eta merkatu horiek gatazkak finantzatzeaz gain, batzuetan, gobernuak ahuldu ere egiten dituztenez, mineralak esportatzen dituzten nazioz gaindiko konpainiek gardentasun handiagoz jokatu beharko lukete. Lehentasunez garatu beharko litzateke Erresuma Batuak babestutako Afrikarako Batzordeak proposatu zuen nazioarteko lege esparru berria, hots, konpainia transnazionalen ustelkeria kasuak ikertzea helburu duen lege esparrua, AEBetako legepean egin den bezala.
- *Arma arinen fluxua eragotzi.* Arma Arinak Ikertzeko 2006ko Konferentziak aukera eskainiko du armen merkataritzari buruzko hitzarmen global bat adosteko. Horren bidez merkatuak arautu eta gatazka dagoen eremuetako hornidura mugatuko litzateke.

- *Eskualdekako gaitasuna eraiki.* Sahara azpiko Afrikaren lehentasunik handienetako bat Afrikar Batasunaren agindupean bete-betean arituko den bake indar eraginkor baten garapena da, eta horretarako, babes finantzario, tekniko eta logistikoa beharko da.
- *Nazioarteko koherentzia eraiki.* NBEko Idazkari Nagusiaren txostenak Nazioarteko Bakegintzarako Batzordea eratzeko eskatzen du, segurtasun kolektiborako estrategia eredu integratua lortze bidean marko estrategiko bat izateko. Horretarako, munduko funts bat sortu behar litzateke, epe luzerako eta aurreikusteko moduko oinarria duen laguntza finantzatzeko, gatazka ondorenean berehala emateko eta epe luzeko susperraldia bermatzeko.

* * *

Giza garapenaren historialariek etorkizunean 2005. urtera begiratzen dutenean, une erabakigarritzat joko dute. Nazioarteko komunitateak inoiz izan ez duen aukera du politika eta baliabide egokiak martxan jarritz, datorren hamarkada garapenaren hamarkada bihurtzeko. Milurteko Adierazpena helburu hartuta, munduko gobernuek globalizazioari forma berria emango dion ibilbidea sortu beharko lukete, munduko milioika pobrerri eta ahulenei itxaropen berritua eman eta guztion oparotasuna eta segurtasuna bermatuko duten baldintzak sortu. Betiko moduan jarraitzen badugu, ordea, mundu ilun bat

izango dugu: pobrezia masiboa, desoreka itzelak eta segurtasun faltaren mehatxu etengabea. XXI. mendearen hasierako une erabakigarri honetan gure politikariek huts egiten badute, etorkizuneko belaunaldiek gogotik ordainduko dituzte ondorioak, bai herrialde aberatsetan eta bai pobreetan ere.

Txostenak erronkaren garrantzi itzelaz ohar-tzeko oinarria eskaintzen du. Nazioarteko lankidetzaren hiru zutabetan oinarrituz, gaingitu beharreko arazoetako batzuk azpimarratzen ditu; baita arrakasta lortzeko behar diren osagai garrantzitsuak aipatu ere. Eta gauza bat dago garbi,

zalantzarik gabe: munduko biztanleok, nazioarteko komunitate gisa, baditugula baliabideak pobrezia erratik desagerrarazteko eta herrialdeak eta jendea banatzen dituzten desoreka handiak gaingitzeko. Milurtekoko Adierazpena sinatu zela bost urte igaro direnean, erantzuteke dagoen funtsezko galdera bat dago oraindik airean: iraganeko joerekin amaitu eta munduko pobreen alde emandako hitza betetzeko asmo irmorik ba al dute munduko gobernuek? Gizaki guztion interesetan aurrera egiteko borondate politiko erabakigarria erakusteko momenturik inoiz izan bada, hauxe da unea.